



TOKI-ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA

(2026ko maiatza)

ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- Erakunde Kritikoak Babesteko eta Erresilientziarako lege-proiektua.

https://www.congreso.es/webpublica/documentacion/docs_trabajo/leg15/121_000088/121_000088_dosier.pdf

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- TES/1573/2025 Agindua, abenduaren 31koa, errege-dekretu honen 2. eranskina eguneratzen duena: 713/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 28koa, Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroari eta gordailuari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 3ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/03/pdfs/BOE-A-2026-158.pdf>

- TES/1582/2025 Agindua, abenduaren 30ekoa, agindu hau aldatzen duena: TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez uztailaren 3ko 694/2017 Errege Dekretua garatzen baita administrazio eskudunen prestakuntza-eskaintzari eta haren finantzaketari dagokionez eta hura finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen baitira. Errege-dekretu horrek Lan Arloko Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen du. (2026ko urtarrilaren 4ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/06/pdfs/BOE-A-2026-326.pdf>

- ECM/2/2026 Agindua, urtarrilaren 9koa, 2026an eta 2027ko urtarrilean Estatuaren zorra sortzea xedatzen duena. (2026ko urtarrilaren 13ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/13/pdfs/BOE-A-2026-678.pdf>

- Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 8koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkari-tza Nagusiarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Altxorraren eta Finantza Politikaren Idaz-

karitza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen zorpetze-eragiketetan eta eratorrietan aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzekoa. (2026ko urtarrilaren 13ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/13/pdfs/BOE-A-2026-679.pdf>

- 37/2026 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, Adamuzeko (Kordoba) tren-istripuaren ondorioz hildakoen aldeko dolu ofiziala deklaratzeko duena. (2026ko urtarrilaren 19ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/19/pdfs/BOE-A-2026-1254.pdf>

- Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 14koa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, 2026an trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituena. (2026ko urtarrilaren 19ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/20/pdfs/BOE-A-2026-1255.pdf>

- 55/2026 Errege Dekretua, otsailaren 3koa, 2025-2028 aldirako Estatistika Plan Nazionalaren 2026ko Urteko Programa onesten duena. (2026ko otsailaren 4ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/04/pdfs/BOE-A-2026-2555.pdf>

- 1/2026 Jarraibidea, martxoaren 26koa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, Aldarrikatutako hautagaitzen ordezkariak hautesle-eroldaren kopiak telematikoki eskuratzeari buruzkoa. (2026ko martxoaren 31ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/31/pdfs/BOE-A-2026-7297.pdf>

- Ebazpena, 2026ko apirilaren 14koa, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzarena, Estatuko Administrazio Orokorren eta haren organismo publikoen zerbitzura dauden langileen lanaldi eta lan-ordutegiei buruzko jarraibideak ematen dituena. (2026ko apirilaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/04/15/pdfs/BOE-A-2026-8287.pdf>

Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- *El juego del silencio administrativo en las solicitudes de información ambiental*, Javier Calvo García (Acento Local blegean argitaratua, 2026ko apirilaren 22an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-juego-del-silencio-administrativo-en-las-solicitudes-de-informacion-ambiental/>

- *Publicidad sancionadora, pena reputacional y tutela cautelar*, Mónica Domínguez Martín (Acento Local blegean argitaratua, 2026ko apirilaren 15ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/publicidad-sancionadora-pena-reputacional-y-tutela-cautelar/>



- **Las declaraciones institucionales de los Gobiernos locales como manifestación específica de su actuación “internacional”,** Gustavo Manuel Díaz González (Acento Local blogean argitaratua, 2026ko apirilaren 1ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/las-declaraciones-institucionales-de-los-gobiernos-locales-como-manifestacion-especifica-de-su-actuacion-internacional/>

- **Es posible la revisión de oficio de los convenios interadministrativos?** , Fernando Luque Regueiro (Acento Local blogean argitaratua, 2026ko martxoaren 25ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/es-posible-la-revision-de-oficio-de-los-convenios-interadministrativos/>

Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz

- **A vueltas con el informe jurídico preceptivo (o no) en los contratos menores,** Concepción Campos Acuña (egilearen blogean argitaratua, 2026ko urtarrilean)

<https://concepcioncampos.org/a-vueltas-con-el-informe-juridico-preceptivo-o-no-en-los-contratos-menores/>

- **Procede la inadmisión del recurso especial cuando el recurrente, previamente excluido de la licitación, pretende reproducir sus argumentos al impugnar el acto de adjudicación,** Juan Antonio Carrillo Donaire (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren blogean argitaratua, 2026ko otsailaren 25ean)

<https://obcp.es/opiniones/procede-la-inadmisión-del-recurso-especial-cuando-el-recurrente-previamente-excluido-de>

- **Uso de la Inteligencia artificial en la Contratación Pública,** Rafael Dickson Morales (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren blogean argitaratua, 2026ko otsailaren 20an)

<https://obcp.es/opiniones/uso-de-la-inteligencia-artificial-en-la-contratacion-publica>

- **Kontratazio publikoko Europako sistemaren egiturazko erreformarako proposamen integrala,** Kontratazio Publikoaren Behatokia (Europako Batzordearen kontsulta publikoaren esparruko analisi-dokumentua eta arau-proposamena)

<https://obcp.es/sites/default/files/2026-01/PROPUESTA%20INTEGRAL%20PARA%20LA%20RE-FORMA%20ESTRUCTURAL%20DEL%20SISTEMA%20EUROPEO%20DE%20CONTRATACION%20PUBLICA.pdf>



Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Organoa

- **2/2026 Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 8koa.** Legitimazio aktiboa: izaera irmorik gabe baztertutako lizitatuak du, baldin eta bere eskaintza prozedura berri batean (Europako jurisprudentzia) aurkezteko aukera emango liokeen lizitazio hutsaren deklarazioa lortu nahi badu. Preskripzio teknikoak: ez-betetzea hautemateari buruzko doktrina orokorra, zenbakitan deskribatutako preskripzioa; preskripzio tekniko baten epea kanpoko egiaztapena, eskaintza argia da eta ez zuen behar zuzentzerik edo argitzerik, gardentasun-printzipioak eta tratu-berdintasuna.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/2_2026/es_def/adjuntos/Resolucion2_2026.pdf

- **7/2026 Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 14koa.** Adjudikazioa. Kontratatze debekua: berdintasun-plana, lizitatuak ez zuen REGCONen inskribatutako berdintasun-planik eskaintzak aurkezteko epea amaitzen zen egunean, baina bazuen onartutako eta indarrean zegoen plan bat, zuzenketa-neurriak ("self cleaning"), adjudikazioa egin aurreko inskripzioa, zuzenketa-neurriak aurkezteko eskubidea proposamena baztertzeko erabakia hartu aurreko edozein unetara zabalitzen da; erantzukizunpeko adierazpenaren faltsutasuna baztertzeko arrazoi gisa, doktrina orokorra, faltsutasuna ez da eraginkorra adjudikazio-prozedura aldatzeko, haren egiazotasuna egiaztatzea erraza delako (erregistro publiko batera sartuz).

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/7_2026/es_def/adjuntos/Resolucion7_2026.pdf

- **9/2026 Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 19koa.** "Espedientea ondorioz gabe uzteko" erabakia. Inpugnatzeko moduko egintza: adjudikazio-prozeduran atzera egitea inpugnatzeko moduko egintza da. Adjudikazio-prozeduran atzera egitea: espedientearen edukitik ondorioztatzen da adjudikazio-prozeduran atzera egitea dela; doktrina orokorra, alegatutako lege-hauste bakarria espedientearen lizitazioarako oinarritzko aurrekontua (LOA) ez justifikatzea da, alegatutako arau-haustea garrantzirik gabea da, ez da eztabaidatzen LOAren zenbatekoa egokia edo nahikoa den, ez du zentzurik prozedura berri bat abiatzeak LOAren justifikazioa sartzeko bakarrik. Pleguen aurka aurkeztutako errekurtsoa eta amaitutako prozeduraren deklarazioa orain baliogabetutako atzera-egitearen ondorioz, errekurtsoa berriro aintzat hartzeko aukera, baztertu gabeko lizitatuak bakarren legitimazio aktiborik eza errekurtso-prozedurari "berrekitea" eskatzeko, lehen errekurtsogilearen (errekurtsoaren alegatzailearen) eskaera ezin da sartu ebazpenaren xedapen-zatian, KEAOk gai horri buruzko epaia eman behar du, ezin da jada amaitutako errekurtso-prozedura bat berreskuratu, ez zen funtsari buruzko epairik eman eta ez dago "gauza epaitu administratiborik", pleguen aurkako balizko beste errekurtso baten aurka preklusio-epe bat jarritzea errekurtso bereziaren ondorio erabilgarriaren aurkako litzateke, pleguen aurkako beste

errekurtsio bat jar daiteke eta errekurtsioa jartzeko epea errekurtsogileak atzera-egitearen baliogabetzearen berri duenetik hasten da. Ezin da froga-eskaerara jo, errekurtsioaren xedea funtsean gai juridikoa delako eta ebazteko behar diren datuak jasota daudelako espedientean.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/9_2026/es_def/adjuntos/Resolucion9_2026.pdf

- **10/2026 Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 20koa.** Kaudimena: lizitatzailleak ez du pleguetan ezarritako kaudimen-irizpidea betetzen (hezkuntza-zerbitzuak eta aisialdiko zerbitzuak), eta bazterketa zuzena da. Zuzenketa eta argibideak: zuzentzeko edo argitzeko izapidearen oinarria da dokumentazioa osatugabea edo okerra izatea edo hala ematea, edo dokumentu jakin batzuk falta izatea, eta ezin da halakorik egin egiaztatutako kaudimena eta eskatutakoa desberdinak badira.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/10_2026/es_def/adjuntos/Resolucion10_2026.pdf

- **17/2026 Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 30koa.** Eskaintzaren sekretua: balio-judizioaren mende dauden adjudikazio-irizpideei buruzko datuak sartzea aurretiko baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazioaren gutun-azalean, eskaintzaren sekretua haustea lizitatzaillei eskatutako dokumentazioa pleguetan konfiguratzearen ondorioz, gardentasun-printzipioa.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/17_2026/es_def/adjuntos/Resolucion17_2026.pdf

- **18/2026 Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa.** Adjudikazioa. Kontratatzekeo debekuak: berdintasun-plana, kontratatzekeo debekurik ez dagoela jaso behar den unea, berdintasun-planen berrikuspina sozietate-eragiketaren kasuan edo enpresaren estatutu juridikoa aldatzen bada, enpresa-taldea, adjudikaziodunak berdintasun-plan bat zuen behar bezala inskribatuta.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/18_2026/es_def/adjuntos/Resolucion18_2026.pdf

- **26/2026 Ebazpena, 2026ko otsailaren 12koa.** Adjudikazioa. Diskrezionalitatea eta arrazoiak: balio-judizioaren mende dagoen adjudikazio-irizpide bat aplikatzea emandako haztapen bereiziko azpi-irizpideetan banatuta, adjudikazio-irizpidearen ebaluazioak errespetatzen ez duen irizpide nagusiaren funts arautua, ez da zuzendu daitekeen irregulartasun bat edo arrazoi falta, ezin da beste balorazio bat egin eta are gutxiago beste emaitza batekin, eskubideak deklaratzeko egintza baten berrikuspina legezko prozedurari lotu gabe, KEAOk ezin du botere adjudikatzailearen diskrezionalitatea ordezkatu. Ebazpenaren ondorioak: adjudikazio-prozedura bertan behera uztea, ezin da atzeraeraginik izan jada ezin direlako bereizita baloratu irizpide diskrezionalak eta formula bidezko ebaluazioaren mende daudenak, kongruentzia, ez dago "reformatio in peius".

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/26_2026/es_def/adjuntos/Resolucion26_2026.pdf

- **44/2026 Ebazpena, 2026ko otsailaren 24koa.** Adjudikazioa. Arrazoiak eta diskrezionalitatea: doktrina orokorra; ez dago balorazio-judiziorik adjudikazio-irizpideen ebaluazioan, ez dira azaltzen emandako puntuazioak, ez dago epez kanpoko arrazoirik errekurtsogileak ezin izan zuelako hartan oinarritu bere inpugnazioa, pleguekin bat ez datorren adjudikazioko azpi-irizpideen aplikazio arbitrarioa, puntuazio espezifikoak duten adjudikazioko azpi-irizpideak adjudikazio-irizpidearen funts arautuaren parte dira. Ebazpenaren ondorioak: ezin da jarduketan atzeraeraginik izan jada ezin direlako bereizita baloratu adjudikazio-irizpide diskrezionalak eta automatikoak, kongruentzia-printzipioa, "reformatio in peius".

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/44_2026/es_def/adjuntos/Resolucion44_2026.pdf

- **47/2026 Ebazpena, 2026ko otsailaren 26koa.** Adjudikazioa. Formulari lotutako adjudikazio-irizpidea; funtzionamendu bitarrarekin deskribatutako irizpidea kontratazio-organoak graduatzeko aukerarik gabe, irizpideak ez du "asetasun-atalaserik"; botere adjudikatzaileak operadore ekonomiko baten kontsultari emandako erantzuna, erantzunak ez du aldatzen adjudikazio-irizpidearen edukia, ezin dira pleguak aldatu kontsulta baten erantzunaren bidez, gardentasun-printzipioa, ezin zaio punturik eman inpugnatutako eskaintzari.

https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/47_2026/es_def/adjuntos/Resolucion47_2026.pdf

Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia

- **398/2026 Ebazpena, 2025eko martxoaren 5koa.** Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Baiespen partziala. Arrazoirik eza, ez zelako txosten teknikoak argitaratu adjudikazioa egin aurretik. Ez da urratu objektibotasun- eta inpartzialtasun-printzipioa, espedienteko txostenen datak erakusten baitu irizpide subjektiboen balorazioa automatikoena baino lehenago egin zela. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek egindako balorazioa. Ez da egokia lizitazioa baliogabetzea, jarduketan atzeraeragina baizik.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202018-2025%20\(res%20398\)%2005-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202018-2025%20(res%20398)%2005-03-2026.pdf)

- **387/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 5koa.** Zerbitzu-kontratuko pleguen aurkako errekurtsua, SPKL. Ezespina. Eskaintzarik aurkeztu ez duen lizitatzailaren legitimazioa. PTPren inpugnatutako klausula bat dator SPKLren 125. eta 126. artikuluetako mugekin. EBJAren doktrina zehaztuen teknikoaren formulazioari buruz. Ez da nahitaezkoa lizitatzailerek eskaintzak aurkezteko unean egiaztatu behar izatea badituztela kontratua gauzatzeko behar diren



bitartekoak edo baliabideak, Preskripzio Teknikoen Pleguan zehazten direnak. Kontratazio-organoak kontratua adjudikatzeko irizpideak taxutzeko duen diskrezionalitate teknikoa. Lizitatuzaileak arau berberekin tratatzen dira, inori bidegabeki mesede edo kalte egin gabe.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201978-2025%20\(res%20387\)%2005-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201978-2025%20(res%20387)%2005-03-2026.pdf)

- **470/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 12koa.** Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Baiespen partziala. AKPPk eskatutako edukia memoria teknikoan ez agertzeak ez dakar, berariazko aurreikuspenik ezean, lizitatuzailea baztertzea, baizik eta haren eskaintzak zero puntu jasotzea omisioak eragindako irizpidean. Balorazioaren arrazoiketak korrelatiboa izan behar du baloratu beharreko alderdiak eta haiek baloratzeko jarraibideak zerrendatzean pleguan jasotako xehetasun-mailarekiko. Kontrako frogarik ezean, fakturak nahikoa dokumentu dira kaudimen teknikoaren ondorioetarako harreman profesionala dagoela egiaztatzen. Datuak minimizatzeko printzipioa; erdietsi nahi den helburua lortzeko ezinbestekoak diren datu pertsonaletarako sarbidea baino ez da eman behar. Ez da baliozkoa espedienterako sarbide nahikorik ez izatearen protesta orokorra; aitzitik, eman ez zaizkion alderdiak eta sarbidea beharrezkotzat jotzeko arrazoiak identifikatu behar dira. Lizitazioaren unean titulu bat aurkezteko, nahikoa da titulua eskatu izana egiaztatzea.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202074-2025%20\(res%20470\)%2012-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202074-2025%20(res%20470)%2012-03-2026.pdf)

- **436/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 12koa.** Zerbitzu-kontratuko bazterketaren aurkako errekurtsua, SPKL. Oso-osoko baiespena. Inpugnatu egin da ongien sailkatutako enpresaren eskaintza erretiratzeko erabakia, bi ekitalditan gordailututako urteko kontuak ez aurkezteagatik eta azken hiru ekitaldietako batean kaudimen teknikoa ez egiaztatzeagatik. Merkataritza Erregistroan behar bezala gordailututako urteko kontuak aurkezteko betebeharrari buruz KEAANEk emandako doktrina aipatzen da. Errekurtsuaren baiespena, enpresak kaudimen ekonomikoa duela egiaztatzean, azken hiru ekitaldietako batean gordailututako urteko kontuen bidez, nahiz eta beste bietan gordailutu ez. Era berean, azken hiru ekitaldietatik bitan kaudimen ekonomiko nahikoa zuela egiaztatu zuen aurkeztutako ziurtagiriek, nahiz eta ekitaldietako batean gutxienera ez iritsi.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202009-2025%20val%20397-2025%20\(res%20436\)%2012-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202009-2025%20val%20397-2025%20(res%20436)%2012-03-2026.pdf)

- **459/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 12koa.** Zerbitzu-kontratuko pleguan aurkako erreklamazioa, 3/2020 Errege Lege Dekretua. Baiespen partziala. Kontratuaren xedearekin lotuta, kaudimenaren eta haren baldintzen zehaztapena aztertzea. Eskakizun murriztaile edo



diskriminatzaileak aztertzea. Kaudimen-irizpideak aldatzea, kontratuaren xede den proiektu beraren aurreko faseei buruzko aurretiko lizitazioetan aplikatutakoekin lotuta: ez dago kaudimen-baldintzak izozteko eskubiderik.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202060-2025%20\(res%20459\)%2012-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202060-2025%20(res%20459)%2012-03-2026.pdf)

- **457/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 12koa.** Zerbitzu-kontratuko bazterketaren aurkako errekurtsua, SPKL. Oso-osoko baiespena. Kaudimena, ABEEa eratzeko konpromisoa hartuta lehiatuz gero. 24. artikuluko metatze-printzipioa eta Auzitegi Gorenaren interpretazioa. Kaudimena ABEEko kide guztietara zabaltzea, nahiz eta batzuek kaudimenik ez izan.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202058-2025%20val%20408-2025%20\(res%20457\)%2012-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202058-2025%20val%20408-2025%20(res%20457)%2012-03-2026.pdf)

- **430/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 12koa.** Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Baiespen partziala. Adjudikazioaren aurkako errekurtsua. Preskripzio teknikoaren pleguko eskakizunei atxikitako zenbait ibilgailu desegokiak izatea. Bitartekoak atxikitze konpromisoa diren ibilgailuak SPKLren 150.2 artikuluko izapidean zuzendu daitezke, baina ez da gauza bera gertatzen eskaintza direnekin. Eskaintza izanik baldintzak betetzen ez dituen bat behintzat baldin badago, ezin da zuzendu. Eskaintzaren kontraprestazioen aldaketa eta baldintzak objektiboak zirela kontuan hartuta, eskaintza aldatu egin da, eta, beraz, egokia da adjudikazioduna baztertzea. Ezinezkoa da errekurtsogileari kontratua adjudikatzea, Auzitegi honen berrikuspen-funtzioagatik.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201824-2025%20clm%20172-2025%20\(res%20430\)%2012-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201824-2025%20clm%20172-2025%20(res%20430)%2012-03-2026.pdf)

- **433/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 17koa.** Zerbitzu-kontratuko bazterketaren aurkako errekurtsua, SPKL. Ezespina. Inpugnatu egin da eskaintza ekonomikoa aldatzearen ondoriozko bazterketa. Aztertzen da ea unitateko prezio batzuetan egindako aldaketa (lizitatzailerei prezio globalaren eta unitateko prezioen baturaren arteko aldea argitzeko eskatu ondoren) akats zuzengarritzat har daitekeen, lizitatzaila onartzeko, unitateko prezio horren eta, ondorioz, eskaintza globalaren aldaketa oso txikia izan zelako (4 zentimokoa baino ez).

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201974-2025%20\(res%20433\)%2012-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201974-2025%20(res%20433)%2012-03-2026.pdf)

- **498/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 19koa.** Zerbitzu-kontratuko bazterketaren eta adjudikatu gabe uzteko erabakiaren aurkako errekurtsua. SPKL. Oso-osoko baiespena. Kontratazio-mahaiak gainditu egin ditu bere kalifikazio-eginkizunak, eta ustezko froga-urritasun bat hauteman du, gertatu zen unean aztertzea egokia ez zena. Ez zuen eskumenik izan

baztertzeko erabakia hartzeko, eta bidegabe aurreratu zuen kaudimenaren balorazioa. Izan ere, ongien sailkatutako lizitatzailari errekerimendua egin eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren bakarrik erabaki ahal izan zuen kontratazio-organoak, eta ez kontratazio-mahaiak, kaudimena ez zela egiaztatu. Desegokia da erabakitako bazterketa, kontratazio-mahaiak ez duelako eskumenik hura deklaratzeko, eta horren berri eman duelako bere eginkizunen muga nabarmen gaudituz eta behar baino lehenago, argi eta garbi. Errekurtso bereziaren xedea aipatutako bazterketa eragin duen adjudikatu gabe uzteko erabakia denez, eta aurrekontu hori desagertu denez, baliogabetu egin da, eta errekurtsogilearen asmoa baietsi, hau da, jarduketak atzera eramatea kontratazio-mahaiak administrazio-dokumentazioa kalifikatu zuen unera.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201959-2025%20ib%20113-2025%20\(res%20498\)%2019-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201959-2025%20ib%20113-2025%20(res%20498)%2019-03-2026.pdf)

- **497/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 19koa.** Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Oso-osoko baiespena. Balio-judizioen pean jarritako irizpideen balorazioa egiteko txosten teknikoaren arrazoirik eza: puntuazioak ematen ditu, baina eskaintza bakoitza gainerakoen gainetik kualifikatu duten alderdiei buruzko azalpen osorik eman gabe, eta, ondorioz, errekurtsogilea babesgabe geratzen da. Ezin da atzeraeraginik izan irizpide automatikoak ebaluatu ondoren: prozedura osoaren baliogabetzea.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201866-2025%20ast%2092-2025%20\(res%20497\)%2019-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%201866-2025%20ast%2092-2025%20(res%20497)%2019-03-2026.pdf)

- **494/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 19koa.** Zerbitzu-kontratuko adjudikazioaren aurkako errekurtsua. SPKL. Baiespen partziala. Herrian zentroa badagoela egiaztatu beharko da hautagaitza aurkezten den unean, eta baldintza hori ezin izango da "a posteriori" zuzendu. Gainera, aurkeztutako dokumentua betetako inprimaki bat da. Bertan ez dago erregistrozenbakirik eta zerbitzua emango ez den herri bati dagokio. Baiespen partziala, Auzitegiak ezin duelako erabaki lotea errekurtsogileari adjudikatzea.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200224-2026%20clm%2028-2026%20\(res%20494\)%2019-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200224-2026%20clm%2028-2026%20(res%20494)%2019-03-2026.pdf)

- **476/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 19koa.** Hornidurari buruzko esparru-akordioako adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Ezespena. Eskaintza teknikoa zuzentzeko izapidea eman da, eta, zuzentzean egindako akatsaren ondoren, horniduran emandako ibilgailuetako bat "ez bideragarritzat" jo da; errekurtsogileak beste zuzenketa-izapide bat eskatu du, bere eskaintzan akatsa zegoelako. Ezin da bigarren zuzenketarik egin. Auzitegiaren doktrina.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202062-2025%20\(res%20476\)%2019-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%202062-2025%20(res%20476)%2019-03-2026.pdf)

- **489/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 19koa.** Zerbitzu-kontratuko adjudikazio-proposamenaren eta eskaintzak sailkatzeko mahaiaren erabakiaren aurkako errekurtsua, SPKL. Ez-onartua. Eskaintzak sailkatzen dituen eta adjudikazioa proposatzen duen kontratazio-mahaiaren erabakia ez da SPKLren 44.2.b) artikulua babesean kontratazio-arloan errekurtsio berezia jar dakioken izapide kualifikatuko egintza bat. Errekurtsogilearen legitimaziorik eza: bosgarren eta seigarren postuan sailkatua (1. eta 2. loteak, hurrenez hurren), sailkapen-erabakian eta adjudikazio-proposamenean: bere eskaintzari bost puntu gehiago ematea eskatzen du, eta, onartu izan balitz ere, horrek ez zukeen adjudikaziodun bihurtuko.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200017-2026%20val%205-2026%20\(res%20489\)%2019-03-2026.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200017-2026%20val%205-2026%20(res%20489)%2019-03-2026.pdf)

- **340/2026 Ebazpena, 2026ko martxoaren 26koa.** Zerbitzuen kontratu espezifikoko adjudikazioaren aurkako errekurtsua, SPKL. Ezespina. Errekurtsogileak alegatu du bere eskaintza ez dela behar bezala baloratu, hiru orrialde baztertu baitira pleguetan baimendutako gehieneko luzera gainditzeagatik. Auzitegi honen doktrina: AKPPn berariaz jasota badago eskaintzen hedaduraren mugak ez-betetzearen aurkako zigorra, horri jarraitu behar zaio, baina aurreikuspen hori ez badago, beharrezkoa da azterketa kasuistiko bat egitea, tratu-berdintasunaren printzipioaren urraketa zenbatekoa izan den jakiteko, eta, hala, aipatutako ez-betetzearen eragina zehazteko.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200093-2026%20\(res%20340\)%2026-02-2026.corregida.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%B1o%202026/recurso%200093-2026%20(res%20340)%2026-02-2026.corregida.pdf)

Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea

- Kontratazio publikoko zuzentarauen kontsulta publikoan bulegoak egindako ekarpenen dokumentua.

<https://www.hacienda.gob.es/rsc/oirescon/estudios-guias-protocolos/aportaciones-oirescon.pdf>

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Estatuko legeria

- Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 27koa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau indargabetzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 16/2025 Errege Lege Dekretua,

abenduaren 23koa, zeinaren bidez neurri jakin batzuk luzatzen baitira gizarte-zaurgarritasuneko egoerei aurre egiteko, eta zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako premiazko neurriak hartzeko. (2026ko urtarrilaren 28ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/28/pdfs/BOE-A-2026-2024.pdf>

- Ebazpena, 2026ko urtarrilaren 27koa, Diputatuen Kongresuarena, errege lege-dekretu hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena: 17/2025 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Abonamenduen eta bidaia anitzeko tituluen gaineko hobarien bidez garrario publikoaren erabilera sustatzeko neurriena. (2026ko urtarrilaren 28ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/28/pdfs/BOE-A-2026-2025.pdf>

- HAC/34/2026 Agindua, urtarrilaren 21ekoa, Azken hamar urteetan egindako obrak kontuan hartuko dituzten sailkapen-azpitaldeen zerranda ezartzen duena, obra-kontratuetan dauden enpresaburuen kaudimen teknikoa egiaztatzeko soilik. (2026ko urtarrilaren 28ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/28/pdfs/BOE-A-2026-2026.pdf>

- 54/2026 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Estatuaren Errepide Sarearen Katalogoa Aldatzen duena. (2026ko urtarrilaren 29ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/29/pdfs/BOE-A-2026-2072.pdf>

- 52/2026 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra eta hura onartzen duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretua aldatzen dituena, Ibilgailu Pertsonal Arinen Erregistroa arautzeko. (2026ko urtarrilaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/30/pdfs/BOE-A-2026-2140.pdf>

- 53/2026 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, 27ko belaunaldiaren ehugarren urteurrena ospatzeko batzorde nazionala sortu eta arautzen duena. (2026ko urtarrilaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/30/pdfs/BOE-A-2026-2141.pdf>

- PJC/44/2026 Agindua, urtarrilaren 27koa, Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean aurreikusitako EBko txartel urdinaren titular diren kualifikazio handiko profesionalen bizileku-baimena emateko erreferentziazko soldata-atalasea ezartzen duena. (2026ko urtarrilaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/30/pdfs/BOE-A-2026-2142.pdf>

- 2/2026 Errege Lege Dekretua, otsailaren 3koa, zeinaren bidez gizarte-zaurgarritasuneko egoerei aurre egiteko premiazko neurriak hartzen baitira zergen arloan eta lurralde-finantzaketako sistemen baliabideei buruz. (2026ko otsailaren 4ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/04/pdfs/BOE-A-2026-2547.pdf>



- **3/2026 Errege Lege Dekretua, otsailaren 3koa, Pentsio publikoak handitu eta Gizarte Segurantzaren arloan premiazko beste neurri batzuk hartzekoa. (2026ko otsailaren 4ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/04/pdfs/BOE-A-2026-2548.pdf>

- **4/2026 Errege Lege Dekretua, otsailaren 10ekoa, zeinaren bidez bermatzen baita ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera ekitatiboa izatea egoera larrietan. (2026ko otsailaren 11ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/11/pdfs/BOE-A-2026-3084.pdf>

- **6/2026 Errege Lege Dekretua, martxoaren 3koa, lege hau aldatzen duena: 20/2022 Legea, urriaren 19koa, Memoria demokratikoari buruzkoa, demokraziaren alde eta hura aldarrikatzen jarduteagatik hil diren edo lesio ezgaitzaileak dituzten pertsonen aitortzari buruzkoa. (2026ko martxoaren 4ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/04/pdfs/BOE-A-2026-5060.pdf>

- **7/2026 Errege Lege Dekretua, martxoaren 20koa, zeinaren bidez Ekialde Hurbileko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onartzen baita. (2026ko martxoaren 21eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/21/pdfs/BOE-A-2026-6544.pdf>

- **8/2026 Errege Lege Dekretua, martxoaren 20koa, Alokairuen arloan Irango gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko neurriena. (2026ko martxoaren 21eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/21/pdfs/BOE-A-2026-6545.pdf>

Euskal Autonomia Erkidegoa

- **EBAZPENA**, 2025eko abenduaren 30ekoa, Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakariarena, ebazpen honen hutsak zuzentzen dituena: 2025eko abenduaren 3ko Ebazpena, zeinaren bidez onartzen baitira auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko 2026rako tarifak, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalek aurkeztutakoak. (2026ko urtarrilaren 19ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/01/2600210a.pdf>

- **5/2026 DEKRETUA**, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez ezartzen baita Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura. (2026ko urtarrilaren 27ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/01/2600361a.pdf>

- **252/2025 DEKRETUA**, abenduaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa onartzen duena. (2026ko urtarrilaren 29ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/01/2600414a.pdf>

- **12/2026 DEKRETUA**, otsailaren 3koa, Landa Garapenaren Euskal Sarea arautzen duena. (2026ko otsailaren 17ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/02/2600693a.pdf>

- **15/2026 DEKRETUA**, otsailaren 17koa, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena. (2026ko martxoaren 2ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/03/2600912a.pdf>

- **16/2026 DEKRETUA**, otsailaren 17koa, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena. (2026ko martxoaren 3ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/03/2600942a.pdf>

- **22/2026 DEKRETUA**, martxoaren 3koa, zeinaren bidez formalizatzen baita Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, eskola-aseguruko osasun-prestazioen kudeaketari atxikitako eta uztailaren 14ko 667/2020 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako bitartekoak aldatzen dituena. (2026ko martxoaren 6ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/03/2601003a.pdf>



- 23/2026 DEKRETUA, martxoaren 3koa, zeinaren bidez formalizatzen baita Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko euskal itsasbazterrari dagozkion barne-uretako eta jurisdikziopeko uretako itsas salbamenduari buruzko Estatuko legeria betetzeko eginkizunak eta zerbitzuak. (2026ko martxoaren 6ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/03/2601004a.pdf>

- 21/2026 DEKRETUA, otsailaren 24koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Erregelamendua onesten duena. (2026ko martxoaren 16ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/03/2601161a.pdf>

- 30/2026 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, Enpleguaren Euskal Foroarena. (2026ko martxoaren 24ko EHAA)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/03/2601276a.pdf>

Arabako Lurralde Historikoa

Aldi horretan ez da arau-jarduerarik egon.

Bizkaiko Lurralde Historikoa

Aldi horretan ez da arau-jarduerarik egon.

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- 10/2026 Foru Dekretu-Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko administrazio-prozeduretan egun baliogabeak deklaratzeko dituenak. (2026ko urtarrilaren 16ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/01/16/c2600246.pdf>

- Ebazpena, 2026ko otsailaren 4koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 1/2025 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 23koa, 2025 urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituenak. (2026ko otsailaren 6ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/02/06/c2600810.pdf>

- 1/2026 Foru Dekretu Araua, martxoaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretza eskumena gartzten duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua aldatzen duena. (2026ko martxoaren 12ko GAO)

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/12/c2601709.pdf>

Nafarroako Foru Komunitatea

- 24E/2025 Ebazpena, abenduaren 31koa, Herrizaingo, Funtzio Publiko eta Justizia Saileko Trafiko Zerbitzuarena, Nafarroako Foru Komunitatean 2026an trafikoa arautzeko neurri berezi batzuk ezartzen dituen. (2026ko urtarrilaren 30eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/30/pdfs/BOE-A-2026-2147.pdf>

- 17/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, Zenbait zerga aldatu eta beste zerga-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. (2026ko otsailaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/20/pdfs/BOE-A-2026-3910.pdf>

- 18/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, Talde multinazionaleri eta Espainiako talde handiei gutxieneko zergapetze-maila globala bermatzeko zerga osagarriari buruzkoa. (2026ko otsailaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/20/pdfs/BOE-A-2026-3911.pdf>

- 1/2026 Foru Legea, otsailaren 13koa, foru-lege hau aldatzen duena: 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa. (2026ko otsailaren 27ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/27/pdfs/BOE-A-2026-4524.pdf>

- 16/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2026ko martxoaren 11ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/11/pdfs/BOE-A-2026-5611.pdf>

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGE- RIA

Andaluziako Autonomia Erkidegoa

- 4/2025 Legea, abenduaren 15ekoa, Andaluzian Industria Sustatzeko Ekoizpen Espazioei buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 8ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/08/pdfs/BOE-A-2026-422.pdf>

- 5/2025 Legea, abenduaren 16koa, Andaluziako Etxebizitzari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 8ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/08/pdfs/BOE-A-2026-423.pdf>

- 6/2025 Legea, abenduaren 22koa, Andaluziako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 16ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/16/pdfs/BOE-A-2026-943.pdf>

- 7/2025 Legea, abenduaren 22koa, Andaluziako Autonomia Erkidegoaren Ondareari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 16ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/16/pdfs/BOE-A-2026-944.pdf>

- 8/2025 Legea, abenduaren 22koa, Andaluziako Autonomia Erkidegoaren 2026rako Aurrekontuari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 16ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/16/pdfs/BOE-A-2026-945.pdf>

Aragoiko Autonomia Erkidegoa

- 7/2025 Lege Dekretua, abenduaren 3koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko basurdeetan txerri-izurri afrikarrari aurrea hartzeko eta haren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/24/pdfs/BOE-A-2026-1683.pdf>

- 8/2025 Lege Dekretua, abenduaren 5ekoa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eremuan ordainsarien gaineko premiazko neurriak onartzen dituen. (2026ko urtarrilaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/24/pdfs/BOE-A-2026-1684.pdf>

- 9/2025 Lege Dekretua, abenduaren 10ekoa, Aragoiko Gobernuarena, Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren Aragoiko prestazio osagarriaren eta kotizazio gabeko erretiro- eta ezintasun-pentsioen osagarrien zenbatekoa zehazten duena. (2026ko urtarrilaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/24/pdfs/BOE-A-2026-1685.pdf>

Asturiasko Autonomia Erkidegoa

- Asturiasko Printzerriko 5/2025 Legea, abenduaren 31koa, 2026rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2026ko otsailaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/09/pdfs/BOE-A-2026-2888.pdf>

Kanarietako Autonomia Erkidegoa

- 7/2025 Legea, abenduaren 16koa, Kanarietako hiri-zuhaitzak eta babes bereziko zuhaitzak babestekoa. (2026ko otsailaren 10eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/10/pdfs/BOE-A-2026-3012.pdf>

- 8/2025 Legea, abenduaren 16koa, Kanarietako Herri Unibertsitateei buruzkoa. (2026ko otsailaren 10eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/10/pdfs/BOE-A-2026-3013.pdf>

Kantabriako Autonomia Erkidegoa

- Kantabriako 6/2025 Legea, abenduaren 15ekoa, lege hau aldatzen duena: Kantabriako 1/2023 Legea, apirilaren 5ekoa, Terrorismoaren Biktimen Aitorpen, Omenaldi, Memoria eta Duintasunari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 2ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/02/pdfs/BOE-A-2026-74.pdf>

- 7/2025 Legea, urtarrilaren 5ekoa, Kantabriako Autonomia Erkidegoko Administrazioan herriarrek parte hartzeari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/20/pdfs/BOE-A-2026-1258.pdf>

Gaztela eta Leóngo Autonomia Erkidegoa

- 3/2025 Legea, abenduaren 22koa, Gaztela eta Leóngo Osasun Zerbitzuan betetzen zailak diren osasun-lanpostuen hornidura egonkor eta iraunkorra bultzatzeko eta osasun-laguntza bermatzeko ezohiko neurriei buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 20ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/20/pdfs/BOE-A-2026-1259.pdf>



- **1/2026 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Gaztela eta Leongo Juntako lehendakariarena, Gaztela eta Leongo Gorteetako Hauteskundeetarako Deialdia egiten duena. (2026ko urtarrilaren 20ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/20/pdfs/BOE-A-2026-1260.pdf>

Kataluniako Autonomia Erkidegoa

- **21/2025 Lege Dekretua, urriaren 14koa, Nekazaritza eta Basogintza Sektoreei Laguntzeko Premiazko Neurriei buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 10eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/10/pdfs/BOE-A-2026-561.pdf>

- **22/2025 Lege Dekretua, urriaren 28koa, Kataluniako Elektrizitate Horniduraren Erresilientzia Areagotzeko dena. (2026ko urtarrilaren 10eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/10/pdfs/BOE-A-2026-562.pdf>

- **10/2025 Legea, azaroaren 26koa, Kataluniako Arreta Integratu Sozial eta Sanitarioko Agenciari buruzkoa. (2026ko otsailaren 14ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/14/pdfs/BOE-A-2026-3382.pdf>

- **1/2026 Legea, otsailaren 4koa, 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Kataluniako Generalitateko Administrazioaren funtzio publikoaren legearen testu bakarra aldatzen duena. (2026ko otsailaren 20ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/20/pdfs/BOE-A-2026-3909.pdf>

- **11/2025 Legea, abenduaren 29koa, Etxebizitzaren eta Hirigintzaren Alorreko Neurriei buruzkoa. (2026ko martxoaren 10eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/10/pdfs/BOE-A-2026-5547.pdf>

- **23/2025 Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Aurrekontu-luzapenean dagoen sektore publikoaren finantza-beharrei eta beste neurri batzuei buruzkoa. (2026ko martxoaren 10eko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/10/pdfs/BOE-A-2026-5548.pdf>

- **2/2026 Legea, martxoaren 6koa, Establezimendu turistikoetako egonaldien gaineko zerga aldatzekoa eta zergaren udal-errekargua kudeatzeko eta biltzeko zerbitzuagatik tasa sortzekoa. (2026ko martxoaren 23ko BOE)**

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/23/pdfs/BOE-A-2026-6642.pdf>

- 255/2026 Errege Dekretua, martxoaren 26koa, errege-dekretu hau aldatzen duena: 830/2023 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, Gobernuko Presidenteordetzei buruzkoa. (2026ko martxoaren 27ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/27/pdfs/BOE-A-2026-7036.pdf>

Extremadurako Autonomia Erkidegoa

- 5/2025 Lege Dekretua, irailaren 18koa, 2025eko udan Extremaduran izandako baso-suteek kaltetutako eremuak leheneratzeko ezohiko laguntzei eta premiazko beste neurri batzuei buruzkoa, eta baso-suteen prebentzioari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/12/pdfs/BOE-A-2026-618.pdf>

- 6/2025 Lege Dekretua, irailaren 18koa, Extremadurako Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan matrikulatuta dauden eta eskola-garraiorako eskubidea duten baina 2025/2026 ikasturtearen hasieran zerbitzu hori jaso ez duten ikasleentzako premiazko laguntzei buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/12/pdfs/BOE-A-2026-619.pdf>

- 7/2025 Lege Dekretua, azaroaren 18koa, lege-dekretu hau aldatzen duena: 5/2025 Lege Dekretua, irailaren 18koa, 2025eko udan Extremaduran izandako baso-suteek kaltetutako eremuak leheneratzeko ezohiko laguntzei eta premiazko beste neurri batzuei buruzkoa, eta baso-suteen prebentzioari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/12/pdfs/BOE-A-2026-620.pdf>

Galiziako Autonomia Erkidegoa

- 3/2025 Legea, abenduaren 15ekoa, lege hau aldatzen duena: 3/2012 Legea, apirilaren 2koa, Galiziako Kirolari buruzkoa. (2026ko otsailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/14/pdfs/BOE-A-2026-3383.pdf>

- 4/2025 Legea, abenduaren 23koa, 2026rako Galiziako Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2026ko otsailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/14/pdfs/BOE-A-2026-3384.pdf>

- 5/2025 Legea, abenduaren 23koa, Zerga eta Administrazio Neurriei buruzkoa. (2026ko otsailaren 14ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/14/pdfs/BOE-A-2026-3385.pdf>

- 6/2025 Legea, abenduaren 23koa, Adingabeen Osasuna Babesteari eta Adikzio Jokabideak Prebenitzeari buruzkoa. (2026ko otsailaren 14ko BOE)



<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/14/pdfs/BOE-A-2026-3386.pdf>

- 1/2026 Legea, otsailaren 5ekoa, Galiziako Klimarena. (2026ko martxoaren 10eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/10/pdfs/BOE-A-2026-5549.pdf>

- 2/2026 Legea, otsailaren 27koa, Zerga Arloko Salbuespenetzko Neurriarena. (2026ko martxoaren 27ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/03/27/pdfs/BOE-A-2026-7044.pdf>

Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa

- 8/2025 Lege Dekretua, abenduaren 5ekoa, Balear Uharten eraldaketa ekonomikoan lagunduko duten proiektu estrategikoak bizkortzeko premiazko neurriei buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 9ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/09/pdfs/BOE-A-2026-487.pdf>

Madrilgo Autonomia Erkidegoa

- 4/2025 Legea, abenduaren 17koa, «IE Universidad Madrid» Unibertsitate Pribatua Aitortze-koa. (2026ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/12/pdfs/BOE-A-2026-3216.pdf>

- 5/2025 Legea, abenduaren 23koa, Madrilgo Erkidegoko Ogasunari buruzkoa. (2026ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/12/pdfs/BOE-A-2026-3217.pdf>

- 6/2025 Legea, abenduaren 23koa, 2026rako Madrilgo Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (2026ko otsailaren 12ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/02/12/pdfs/BOE-A-2026-3218.pdf>

Murtziako Autonomia Erkidegoa

- 4/2025 Legea, abenduaren 15ekoa, Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen sektoreetako gizarte-itunetan eta hitzarmenetan plazen eta arreta goiztiarreko zerbitzuaren zenbatekoa gehitzeari buruzkoa. (2026ko urtarrilaren 24ko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/24/pdfs/BOE-A-2026-1682.pdf>



Valentziako Autonomia Erkidegoa

- 194/2025 Dekretua, abenduaren 12koa, Consell-arena, Universitat Jaume I Unibertsitatearen Estatutuak Onartzen dituenak. (2026ko urtarrilaren 10eko BOE)

<https://www.boe.es/boe/dias/2026/01/10/pdfs/BOE-A-2026-563.pdf>

JURISPRUDENTZIA

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- **EBJAren 2026ko martxoaren 5eko Epaia. C-210/24 auzigaia.** Epai honen bidez, Euskadiko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (KEAO) aurkeztutako kontu aurrejudizial bat ebazten da, kontratuari atxikitako langileen soldata-masaren igoeran oinarritutako adjudikazio-irizpide baten legezketasunarekin lotuta.

EBJAK “kontratuaren xedearekiko lotura” kontzeptuaren interpretazio zabala egin du, eta esaten du horrek prestazioaren bizi-zikloaren edozein alderdiri egin diezaikeela erreferentzia, baita gauzatze-prozesuari buruzko faktoreei ere, nahiz eta zerbitzuaren alderdi materialekoak ez izan.

Hori oinarri hartuta, ondorioztatzen du kontratua gauzatzen duten langileen soldata-igoerari buruzko irizpide bat alderdi sozial bat dela Zuzentarauaren 67.2 artikulua zentzuan, eta kontratuaren xedeari lotuta egon daitekeela, batez ere eskulaneko zerbitzu intentsiboetan, hala nola gizarte-zerbitzuetan.

Auzitegiak inplizituki onartzen du lan-baldintza hobeen eta zerbitzuaren kalitate handiagoaren arteko korrelazioa, eta nabarmentzen du langileen ordainsariak eragina izan dezakeela laneko gogobetetzean, eta, beraz, prestazioan.

Hala eta guztiz ere, muga garrantzitsu bat sartu du: organo nazionalari dagokio egiaztatzea irizpideak berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta proportzionaltasunaren printzipioak errespetatzen dituela, eta ez duela arrazoirik gabeko ondorio baztertzailerik sortzen lizitatzaileren artean.

Bigarrenik, EBJAK irizpidearen eta negoziazio kolektiboaren eskubidearen arteko bateragarritasuna aztertu du (EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 28. artikulua). Auzitegiak bateraezintasuna baztertu du, uste baitu negoziatzeko betebeharrak ez dakarrela negoziazio horren emaitza langileen ordezkari inposatzea.

Hala, soldata-igoerak negoziazio kolektiboaren bidez zehazteko eskakizunak ez du eskubide hori urratzen, baldin eta eskaintako baldintzak automatikoki onartzera behartzen ez badu.

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:62024CJ0210&qid=1719597171337>

- EBJAren 2026ko urtarrilaren 22ko Epaia. C-812/24 auzigaia.

1) 2014/24/EB Zuzentarauaren 63. artikulua 1. apartatua honela interpretatu behar da: sozietate nagusi batek beste erakunde batzuen ahalmenetara jotzen du, kapital osoa berea duen filial baten ahalmenak erabili nahi dituzenean kontratu publiko bat gauzatzeko.

2) 2014/24 Zuzentarauaren 56. artikulua 3. apartatua honela interpretatu behar da: kapital osoa berea duen eta administratzaileetako bat sozietate nagusiaren administratzailea ere baden filial baten ahalmenetara jo nahi duen sozietate nagusi bat ezin da lizitazio-prozedura batetik kanpo utzi, horretarako arrazoi bakarra bada bere eskaintza ez duela erantsi filial horren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB); izan ere, omisio hori zuzendu egin daiteke, baldin eta Zuzenbide nazionalako ezein xedapenek ez badu horren aurka egiten eta zuzenketa hori tratu berdintasunaren eta gardentasunaren printzipioak errespetatuz egiten bada.

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:62024CJ0812>

Auzitegi Gorena

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4370/2025 AGE) 1272/2025 AGE, 2025eko urriaren 13koa. Auzietako Sala. Auzitegi Gorenak kasazio-doktrina hau ezartzen du: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 49.c) artikuluan jasotako "aste osoak" kontzeptua, ama biologikoa ez den gurasoak jaiotzatik, seme edo alaba bat hartzeagatik, harrera egiteagatik edo adoptatzeagatik duen baimen ez-nahitaezkoa hartzearekin lotuta, eta inguruabar partikularren arabera, aldatu egin daiteke kopuruz, eskatzailea lanaldia erregimen berezian betetzen ari bada, atsedeen-denboraren banaketa irregularrarekin, proportzionaltasun-arau bat aplikatuz asteko lanaldi arruntari, benetako lan-denbora salbuetsiaren baliokidetasuna eta lan-erregimen desberdinen artean berdinduz baliatzea bermatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1e5761646122fd25a0a8778d75e36f0d/20251030>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 5465/2025 AGE) 1541/2025 AGE, 2025eko azaroaren 27koa. Auzietako Sala. Bitarteko funtzionarioak instruktore eta idazkari izenda daitezke Administrazioak izapidetutako zehapen-espedituetan. Eginkizun horiek ez dagozkie karrerako funtzionarioei soilik. Bi funtzionario-motak parekatzea, hautaketarako irizpide erabakigarri gisa duten gaitasun teknikoa soilik kontuan hartuta, bitarteko funtzionario izate hutsak eraginik izan gabe horien esku-hartzea izan duten zehapen-espedituetan erregulartasunean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b1c093d7ee80d3f2a0a8778d75e36f0d/20251212>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 18/2026 AGE) 1/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.** Zerga-egoitza Bizkaian duen erakunde batek Sozietateen gaineko Zergari lotutako eragiketak egin zituen 2007an, eta ikuskapen-eskumen hori zegokion eztabaidatzen ibili ziren Zerga Administrazioako Estatu Agentzia (AEAT) eta Bizkaiko Foru Aldundia (BFA). AEATEk alde bakarretik hasi zuen ikuskapen-prozedura 2012ko uztailaren 3an, azaldutako eskumen-gatazka konpondu aurretik. Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak hasiera-jakinarazpen horren erabateko deuseztasuna deklaratu zuen, eskumenak inbaditzeagatik eta prozedura funtsean urratzeagatik, eta horrek AEATEk 2007ko zerga egiaztatzeke zuen eskubidea preskribatzea ekarri zuen. Salak arrazoiak ematen die Arbitraje Batzordeari eta zerga-erakundeari, eta berresten du AEATEN jarduketak, 2012ko uztailaren 3an ikuskapen-prozedura alde bakarretik hastean, erabat deuseza izan zela, eskumenak inbaditzeagatik eta ezarritako prozedura funtsean urratzeagatik. Argudiatzen da Arbitraje Batzordearen 64/2023 Ebazpena, deuseztasun hori deklaratu zuena, irmoa dela eta bere baldintzetan betearazi behar dela, eta, beraz, AEATEk ez zuela behar bezala bete ebazpen hori. Deuseztasunak atzeraeraginezko ondorioak ditu, eta, hortaz, hasiera-jakinarazpenak eta ondoriozko jarduketek ez dute eteten 2007ko zerga egiaztatzeke eskubidearen preskripzioa. Ondorioz, ezetsi egiten da AEATEk jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, eta kostuak ordaintzera kondenatu da. Ez da doktrina-aldaketarik ezarri, baizik eta erabateko deuseztasunaren berrespena eta aplikazio zorrotza eskumenak inbaditzen diren kasuetan, eta ikuskapen-eskumena zehazteko ezarritako prozedurak errespetatzeko beharra.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/51bb9279b0d57656a0a8778d75e36f0d/20260122>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 80/2026 AGE) 6/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 9koa. Auzietako Sala.**

Errekurtsioa aurkeztu duen erakundeak administrazio-baimenik gabe egin zituen obrak eta lanak Guadiana ibaiaren jabari publiko hidraulikoko eremuan: lur-mugimenduak, belar-sastrakak garbitzea eta putzu bat handitzea. Hori salatu egin zen, eta zehatu, isun maximoarekin eta kalteak ordaintzeko obligazioarekin (321.429,71 euro). Errekurtsogileak hauek alegatu zituen: prozeduraren iraungipena, entzuterik eza, kalterik ez egotea edo behar bezala ez baloratzea, eta zehapenaren neurrigabekeria.

Epaiak argitzen duenez, hasiera-egintza formalarekin hasten da zehapen-prozeduraren iraupen-eparearen zenbaketa, eta ez aurretiko jarduketekin, eta nabarmentzen du arau-hauste administratiboetan isun maximoa ezartzeko arrazoi espezifiko eta zehatua eskatzen dela, proportzionaltasun-printzipioa eta oinarritzeko eskubideen babesa indartzeko zehapen-eremu administratiboan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/97a81cfe5e0a3a1ba0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 17/2026 AGE) 8/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 13koa. Auzietako Sala.**

Errekurtsogileak desjabetutako finen soberakinak itzultzeko eskatu zuen, argudiatuz Administrazioak ez zuela epearen barruan erantzun, eta, beraz, egintza irmo bat gertatu zela Administrazioaren isiltasun positiboaren bidez; Administrazioak behin eta berriz erantzun zuen itzulketa ukatuz, Defentsa Nazionalari atxikitako jabari publikoko ondasunak zirelako, desfektazio-prozedurarik gabeak, eta errekurtsogileak ustezko egintza irmoa gauzatzeko eskatu zuen. Egintza hori ukatu egin zen, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen. Errekurtso hori baietsi egin zen lehen auzialdian, baina kasazioan baliogabetu zen, egintza irmoa benetan existitzen zela egiaztatu ez zelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/36703f099045bf3aa0a8778d75e36f0d/20260122>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 77/2026 AGE) 9/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 13koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako errekurtsoa, eta berretsi egiten du hondartza bateko lursailen gaineko emakidak ematen zituen ministro-agindu baten egintza deusez berrikusteko eskaeraren ezespena; izan ere, berrikusteko eskatu den egintzatik igarotako denbora aurreko epaietan kontuan hartutakoa baino luzeagoa da, ia 66 urte hartzen baititu, eta, horrenbestez, justifikatuta dago hura ezestea. Emakida-eskubideen gozamen zabala eta ministro-agindua baliogabetzeko gaur egungo ekimena jokabide antagonikoak dira, eta ez datoz bat egintzekiko lotura-printzipioarekin, hau da, eskubideen egikaritzan nagusi izan behar duen fede onaren adierazpenetako batekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a1696295c87695bea0a8778d75e36f0d/20260129>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 3/2026 AGE) 12/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Lege-mailako arau bat konstituzioaren aurkakotzat jotzen bada eta partikular bati kalte ekonomikoa eragiten badio, eta partikular horrek administrazio-jardunaren aurkako errekurtso bat ezesten duen epai irmoa jaso badu arau horretan oinarrituta, egokia da Estatu legegilearen ondare-erantzukizunagatiko kalte-ordaina ematea, baldin eta partikularrak kaltea jasateko bete-behar juridikoa ez badu, baita zerga-likidazioak irmoak badira edo gauza epaitua badute ere, eta erreklamatzeko epea epai irmo hori jakinarazten denetik zenbatzen da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/950df343ff258394a0a8778d75e36f0d/20260122>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4/2026 AGE) 10/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak ez du onartzen erreklamazioa, alokairuekin lan egiten duen sozietate batek etxebizitza-erabilerarako errentamendu-kontratuen errentaren eguneratzea mugatzearen ondorioz eragindako kalte-galerengatik aurkeztutakoa, ulertzen baitu ez dela nahitaez jabetza kentzearen kasua. Auzitegiaren arabera, muga horrek, inflazio-prozesua eten eta errentari zaurgarriak babestu nahi zituenak, ez zuen jabetza-eskubidea kendu, eta ez zuen haren funtsezko edukia urratu, ez baitzen eskubide horren hustuketa edo erauzketa gertatu, arrazoizko muga bat baizik, behar bezala arrazoitua eta proportzionatua. Legegileak aldean autonomiari errentaren zenbatekoa eguneratzeko muga bat ezartzeak jabetza-eskubidearen gizarte-funtzioari erantzuten dio, eta ez dio eragiten eskubidearen funtsezko edukiari, baldin eta eskubide hori ezagutezin bihurtu arte aldatzen ez badu, eta hori gertatzeko modu bakarra dago: funtsean ezabatzea errentamendu-negozioaren erabilgarritasun ekonomikoa, errenta bat lortzea, alegia.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ec043726110bd7fba0a8778d75e36f0d/20260122>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 85/2026 AGE) 13/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du administrazio-kontratu baten likidaziotik eratorritako Administrazio kontratatzailearen aldeko eskubideen kasuan aplikatu beharreko preskripzio-epea Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa dela, Tributuen Lege Orokorrean xedatutakoari lotuta. Hala ere, "apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen eskubidearen preskripzio-epean, administrazioarekiko auzien bidean etetea erabaki ez bada" ez da aplikagarria administrazio-kontratu baten likidazioa inpugnatzeko kasuetan; izan ere, preskripzioa eteteari buruz Aurrekontuen Lege Orokorra Tributuen Lege Orokorrean egiten duen igorpena ezin da bereizi gabe ulertu, zerga-arloko zorrak aipatzen baititu bere osotasunean, eta hor ez dute parte hartzen kontratu baten likidaziotik sortutako bete-behar eta eskubideek.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d6aacceea9674672a0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 86/2026 AGE) 17/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak deklaratzeko du osagarri berezi eta apartekoarekin ordainduko dela guardia-zerbitzuaren araubideari lotutako organo judizialean lan egiten duten Justizia Administrazioako funtzionarioek guardia-txanda egitea. Osagarri hori guardia-zerbitzua benetan egiteagatik jasoko da, aldez aurretik egiaztatuta zerbitzu hori hilabete batean egin izanaren ziurtagiriaren bidez, dagokion organo judizialeko Justizia Administrazioako letraduak emana, eta guardia-zerbitzuagatik ordainsari-osagarria ezingo dute jaso, zerbitzu aktiboan egonik eta guardia-zerbitzuaren araubide honi lotutako organo judizialean lan egiten egonik, oporraldia, ordaindutako baimena edo beren erregelamendu organikoetan aurreikusitako lizentziaren bat emanda duten funtzionarioek, zerbitzua benetan egiteagatik eta hori egiaztatzeagatik soilik jasotzen baita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9945557b59fb87faa0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 78/2026 AGE) 14/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak baietsi egiten du jarritako errekurtsua, eta baliogabetu egiten du Estatu lege-gilearen ondare-erantzukizunagatik kalte-ordainaren eskaera ez onartzea, Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergarekin lotuta, eta kalte-ordaina aitortzen du horretarako; izan ere, aurkeztutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioa lege ezarritako epearen barruan egin zen, Konstituzio Auzitegiaren 59/2017 Epaia argitaratu zenean hasi baitzen zenbatzen, 2017ko ekainaren 15ean. Epai hori da, hain zuzen, errekurtsogileak aurkeztutako ondare-erantzukizunaren erreklamazioa babesten duen erabakia, eta, era berean, hori aipatzen da orain inpugnatzeko den administrazio-ebazpenean, baina, kasu zehatz horretan, etenda geratu zen errekurtsogileak egindako inpugnazioa jurisdikzio-bidean ebatzi arte; izan ere, dagokion epaia eman arte ez da ezagutzen erreklamatzeko den kaltea gertatu den ala ez. Horrez gain, eragiketa ekonomiko bat zergapetu zen, higiezin baten kostubidezko eskualdaketa bat hiri-lurzoruan, non ez zen egiaztatuta balio-gehikuntzarik egon zenik, eta, beraz, aberastasun erreal edo potentzialaren adierazpen bat, ahalmen ekonomikoaren printzipioarekin bateragarria den karga eragin zezakeena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bad7de569215fbc8a0a8778d75e36f0d/20260129>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 172/2026 AGE) 18/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du Administrazioak ezin diola eman subjektu pasibo berari bigarren likidazio bat zerga-kontzeptu beragatik, lehenbizikoa Administrazioak berak baliogabetu bazuen irmo bihurtu zen eta eskubide osoz kaltegarritzat edo deuseztatzen jo ez den egintza batengatik; hala ere, horrek ez du eragozten epaitegi batek beste likidazio bat baliogabetu izana, beste subjektu pasibo bati igorria, zerga-kontzeptu beragatik, lehenbiziko interesduna alderdi izan ez den prozedura batean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3c8f7b58f8a9449ba0a8778d75e36f0d/20260205>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 220/2026 AGE) 11/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du 2024ko ekitaldiari dagokion enplegu publikorako eskaintza onartzen duen uztailaren 2ko 656/2024 Errege Dekretuaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa; izan ere, enplegu publikorako eskaintzak, zeina urtero onartzen baita, giza baliabideen plangintzan du bere oinarri juridiko orokorra, eta hurrengo EPEetan aipatutako aurreikuspen askoren edukiek, duela hamarkada bat baino gehiagotik, ez dute sartzen, salatzen den moduan, inpugnatzen den eskaintzaren izaera eta plangintza-baliabide honen berezko konfigurazioa indargabetzen duen benetako elementurik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/30fd83283fa823aea0a8778d75e36f0d/20260205>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 83/2026 AGE) 19/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 15koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du demanda, eta berretsi egiten du COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera eta haren luzapenak deklaratzeko dituen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuarekin lotuta egindako ondare-erantzukizunaren erreklamazioaren ezespena; izan ere, alderdi auzi-jartzaileak jasan behar izan zituen neurri murriztaileak, jasandako ondare-kalteak eragin dituztenak, konstituzioaren arabekoak eta egoeraren neurrikoak izan ziren, egoeraren larritasuna ikusita, eta behar adinako orokortasun-maila izan zuten hartzaileei begira. Hartzaileek neurri horiek jasateko betebeharrak juridikoa izan zuten, jasan zituzketen kalteengatik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe, eta Konstituzio Auzitegiak berriaz deklaratzeko du hori.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/2e07f4ba128a9b0ca0a8778d75e36f0d/20260129>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 221/2026 AGE) 23/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 15ekoa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten duenez, kartel gisa kalifikatutako praktketan edo jokabideetan, merkatu geografiko garrantzitsuaren edo ukituaren definizioa ez da arauz adierazitako jokabide debekatuen motako elementu bat, erabakigarria jokabide arau-hauslearen antijuridikotasuna baloratzeko; aitzitik, baloratze ekonomiko bat da, operadoreen arteko lehiaren mugak ezartzeko aukera ematen duena, eta kontuan hartu eta aztertu egin behar da lehia eragozte, murriztea edo faltsutzea helburu duten lankidetzako edo hitzarmeneko enpresa-estrategiak garatzen diren espazio-eremua noraino iristen den jakiteko, lehiaren aurkako jokabideen larritasuna zehazteko, eta, ondorioz, dagozkion zehapenen zenbatekoa kuantifikatu ahal izateko, objektibotasun-eta proportzionaltasun-printzipioen eta -irizpideen arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/13e514b27c6c7010a0a8778d75e36f0d/20260205>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 89/2026 AGE) 26/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 19koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak ezartzen du epaile inpartzial bat izateko eskubidea, printzipioz, aldeek baliatu behar dutela prozesuan, errekusazio-intzidentetaren bidez eta Botere Judizialaren Lege Organikoak ezarritako kausa tasaturen bat gertatzean oinarrituta. Eta hori aldeak oinarrian dagoen kausaren berri izan bezain laster sustatu behar da. Sozietate emakidadunak apelazio-errekurtsoaren epaia emango zuen Auzitegiaren osaeraren berri izan zuen bozketa eta epairako seinalatze-erabakia jakinarazi zitzaionean, eta une horretan jarri zen errekusazioa epearen barruan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ffc9e804779fe6d2a0a8778d75e36f0d/20260129>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 92/2026 AGE) 24/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 19koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak ezartzen du epai baten ondorioak zabaltzea egokia dela, justu interesdunarentzat emandako ebazpenik ez dagoenean, hartzaile anitzeko administrazio-egintzak direlako; adibidez, funtzionarioak eta langile lan-kontratadun finkoak izateko helburuarekin barne-sustapenez Estatuko Administrazioko Administrazioen Kidego Orokorrean sartzeko hautaprobetako ariketa bakarra gairatu duten oposizioegileen zerrendak argitaratzen dituen ebazpen bat inpugnatzeari.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fcfde4906d140a21a0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 94/2026 AGE) 25/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 19koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du, administrazio-jarduera lan-arloari buruzkoa bada (alderdi enplegatailearen ondorioz), lan-ordenari dagokiola langileak kontratatze fase guztiak bereiztea, prestatze-fasea barne, aldean arteko lan-lotura bera osatzen eta baldintzatzen duena, eta lege-gileak lan-harremanarekin lotuta lan-arloko jurisdikzioari ematen dion babes bereziaren mende egon behar duena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/0326737c38c42d26a0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 218/2026 AGE) 27/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 19koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du, egokitasunez sartzeko askatasunaren jurisprudentzia-printzipioaren argitan, ez dagoela autonomia-erkidego baten erregela-mendu-erregulazio baten aurka, baldin eta autonomia-erkidegoak, bere burua antolatze ahalmenari jarraituz, aholkularitza emateko bulego teknikoak ezartzen baditu udalerrientzat honako arlo hauetan: hirigintza- eta lurralde-antolamendua, -kudeaketa eta -diziplina, etxebizitza, bizigarritasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna, landa-garapena, ingurumenaren kontserbazioa eta babesa, eta kultura-ondarea. Horien zuzendaritza Arkitekturan edo baliokidean tituludun diren profesionalei esleituko zaie, eta Arkitekturako, Arkitektura Teknikoko edo Eraikuntzaren Ingeniaritzako edo baliokideko titulazioa duten teknikari kualifikatuek osatuko dute, baldin eta, epaitzen ari garen kasuan gertatzen den bezala, lanbide-gaitasuneko baldintza horiek objektiboki justifikatzen badira interes orokorreko premiazko arrazoiak daudelako, lurralde- eta hiri-ingurunea babestearekin zerikusia duten ondasun juridikoei dagozkienak, bai eta ingurumena eta historia- eta kultura-ondarea zaintzearekin zerikusia dutenak ere, baldin eta neurrizkoak badira, diskriminatzaileak ez badira, eta eska daitekeen prestakuntzarekin bat badatoz, gaitasunari eta egokitasunari begira, jarduera horiek egiteko eta aholkularitza espezializatuko funtzio horiek betetzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3dadd9d322dd5865a0a8778d75e36f0d/20260205>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 87/2026 AGE) 34/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 21ekoa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du zerbitzua-kudeatzeko kontratuaren luzapena ezar dakiokoela kontratatari haren baimenik gabe, interes publikoko beharregatik, baldin eta kontratuak ez badu aurreikusten bi aldeak ados jartzea kontratua luzatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1ef94f8ceb2f745aa0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 878/2026 AGE) 40/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 21ekoa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du Administrazioari egotz dakizkikeen arrazoiengatik kontratua ete-teak ez dakarrela automatikoki kalte-ordaina jasotzeko eskubidea; izan ere, etete horren ondoriozko kalteak justifikatu eta egiaztatu behar dira, eta hori edozein frogabideren bidez egin daiteke, baldin eta frogabide horietatik zentzuz ondoriozta badaitezke kalteak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8aba56fbf8c189e4a0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 90/2026 AGE) 39/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 21ekoa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du zerbitzu-kontratuetan, baita xedetzat izaera intelektualeko prestazioak dituzten kontratuetan ere, kalitatearekin lotutako irizpideek eskaintzen balorazioan eman daitekeen puntuazioaren % 51 izan behar dutela gutxienez, adjudikaziorako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/28f23b30f812e74ca0a8778d75e36f0d/20260129>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 176/2026 AGE) 36/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 21ekoa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak berresten du ezarritako aurretiko doktrinak, zeinaren arabera aplikagarria baita industriak geldiarazteko araubidea jarduera geldiarazteko eta establezimenduak ixteko kasuei, alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak agindutakoari jarraituz, aukera ematen duela ondorioz gabe uzteko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren likidazio irmo bat, eta zerga horren kuota gisa sartutakoa itzultzeko, 2020an jarduera eten zen denboraren zati proportzionalan, industriak geldiarazteko araubidera joz, zergadunak kuota murrizteko duen asmoari erantzunez, karga fiskalaren ekitatea lortzeko salbuespenezko egoera baten aurrean, jasanezina eta justifikatua babes handiagoa behar zuten beste balio konstituzional batzuen lehentasunak eraginda.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d072a082f2021981a0a8778d75e36f0d/20260205>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 190/2026 AGE) 35/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 21ekoa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak adierazten du beharrezkoa dela, Kanarietako Errepideko Garraioaren Antolamenduari buruzko maiatzaren 17ko 13/2007 Legeak ibilgailu bakoitzari buruz ezartzen duen administrazio-baimena ez ezik, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legeak eskatzen duen administrazio-baimena ere. Lege horrek enpresa- edo lanbidegaikuntza zehazten du kontratatze gaitasun gisa, kontratuaren lizitazio-prozeduran eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretik aurkeztu behar da, eta iraun egin behar du kontratua buruzteko momentuan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/27f4ddd6d7c5889aa0a8778d75e36f0d/20260205>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 91/2026 AGE) 45/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 22koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du, kontratu baten adjudikazioaren aurkako kontratazioaren arloko errekurtsio berezi baten esparruan, lizitzaile adjudikaziodunaren kaudimen teknikoak zalantzan jar dezaketen dokumentu berriak geroago eranstean badira, Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusiak baloratu ahal izango dituela, kaudimen tekniko horri buruz erabakitzeke, adjudikazio-egintzaren baliogabetze-nahiaz ebazteko. Izan ere, frogaren izapidean, arauak ez badio beste mugarik jartzen froga-elementuen praktikari, haien egokitasunari eta erabilgarritasunari buruzko muga orokorrak baino, arau-terminoen beste edozein interpretazio murriztailek urratu egiten ditu izapide honen konfigurazioa eta irismena, eta babesgabatasun materiala ere eragin diezaike froga proposatu duen alderdiari, eta ukatu egin dakioke praktika hori egitea, jada aipatutako egokitasun- eta erabilgarritasun-arrazoibideak ez diren beste batzuen bidez. Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusiak adjudikazio-erabakiari buruz emandako ebazpenetik gainerako lizitzaileentzat eratortzen diren ondorio juridikoak, lehen aitortutako hedaduran, erabaki horren zentzuaren, edukiaren eta irismenaren arabera izango dira, eta ondorengo bide judizialean jaso ahal izango da itzultze- edo ordain-babesa, kasu eta egoera bakoitzaren inguruabarren arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/405aecf2c255cc7fa0a8778d75e36f0d/20260129>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 184/2026 AGE) 48/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 22koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du Diputazio Probintzial batek erabakitzea aurretik existitzen den kapital-sozietate bat erabiliko duela, baliabide propio pertsonifikatu gisa, sozietate horrek tokiko merkataritza-sozietatearen izaera izan gabe eta, legeak aurreikusitako moduan, haren kapital sozialaren zati bat eskuratuta, tokiko enpresa-sektore publikorako antolamenduan garrantzia duen akordio bat dela, eta haren garrantzi ekonomiko-finantzarioa eta tokiko kontratazio publikoan duen eragina kontuan hartuta, erabaki hori hartzea aipatutako korporazioaren osoko bilkurari dagokiola.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/71d8c9f97b4554b8a0a8778d75e36f0d/20260205>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 217/2026 AGE) 47/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 22koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina bat berresten du, zeinaren arabera honela interpretatu behar baita lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean jasotako eskubideak deklaratzeko egintzak berrikusteko araubide orokorraren aplikagarritasunaren salbuespen-kasua: Gizarte Segurantza kudeatzen duten erakunde, organo edo organismoak dagoen prozesu judiziala Lan Arloko Epaitegi eskudunaren aurrean eskatetik salbuesten ditu, berrikuspenaren xedea akats materialak edo egitezkoak, agerikoak edo eztabaidaezinak eta aritmetikoak zuzentzea bada, baita onuradunaren deklarazioetan omisioak edo zehaztasun ezak egiaztatzeak eragindako berrikuspenak ere. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ikusten badu tarifetan aldeak daudela onuradunaren deklarazioetan egiaztatutako omisioen edo zehaztasun ezen ondorioz, ofizioz berrikusteko prozedura eska dezake, eta, beraz, ez da berrikuspena eskatu beharko Lan Arloko Jurisdikzioan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/27de9c377e531103a0a8778d75e36f0d/20260205>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 186/2026 AGE) 44/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 22koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du ez dela egokia kontratu baten adjudikaziodunari zigorrik ezartzea kontratua ez formalizatzearagatik, lizitazioa zuzentzen duten plegetan ez bada adierazi kontratua uzten duen enpresako langileen subrogazioari buruzko informazioa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/fde1233ccfd10806a0a8778d75e36f0d/20260205>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 178/2026 AGE) 50/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 26koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du kontratatze debeku hori, lehia faltsutzeagatik zehapen irmo bat dakarrenean, lehia-arloan eskumena duen administrazio-agintaritzak erabaki dezakeela zehapen-ebazpenean bertan, eta haren irismena eta iraupena ezarri ahal izango dituela, arauz xedatutakoaren arabera; zehapen-ebazpenak zehaztaper hori jasotzen ez badu, debekuaren irismena eta iraupena finkatzea kontratu-agintaritzari dagokio, arauz aurreikusitako prozedura espezifikokoaren bidez.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6d152a7f782fb4f9a0a8778d75e36f0d/20260206>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 197/2026 AGE) 61/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 27koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak adierazten du Covid-19aren aurkako txertaketaren arduraren hartutako Administrazio autonomikoak, 2020ko martxoan deklaraturako nazioarteko pandemiaren salbuespeneko izaera dela eta, "lex artis ad hoc" delakoaren aurkakoa bada edo behar bezalako arretarik eza egiaztatzen bada soilik erantzun beharko duela praxi txar baten ondoriozko administrazio-jarduketagatik, eta ezin izango zaizkiola egotzi osasun-larrialdiko testuinguru hartan pertsona batzuei txertoa jartzeak eragindako ondorio kaltegarri guztiak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bc8000af5a2b2402a0a8778d75e36f0d/20260205>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 188/2026 AGE) 69/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 28koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du aldean autonomiari errentaren zenbatekoa eguneratzeko muga bat ezartzeak ez diola eragiten eskubidearen funtsezko edukiri, ez baitu eskubide hori aldatzen ezagutezin bihurtu arte, eta hori gertatzeko modu bakarra dago: funtsean ezabatzea errenta-mendu-negoziaren erabilgarritasun ekonomikoa, errenta bat lortzea, alegia. Eskubideen jabetza kentzen ez duten legegintzako egintzak aplikatzeagatik Estatu legegilearen ondare-erantzukizuna hauteman ahal izateko, bi baldintza bete behar dira aldi berean: batetik, legegintzako egintza horiek kaltea eragitea hartzaileei, baldin eta hartzaileek ez badute hori jasateko betebeharr juridikorik; eta, bestetik, egintzek beraiek kalte horien ordaina aurreikustea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/9ec8e0671fd07e2ea0a8778d75e36f0d/20260205>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 189/2026 AGE) 67/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 28koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du likidazioa erabat deuseza izango dela baldin eta epai batek emakida-kontratuaren likidazioa egiteko klausulak aplikatzeko modua ezartzen badu eta agindu horiek betetzen ez badira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/977aebf6486fb724a0a8778d75e36f0d/20260205>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 191/2026 AGE) 68/2026 AGE, 2026ko urtarrilaren 28koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du epaian erabakitako erregelamenduzko xedapen baten deuseztasun-deklarazioak deklarazio hori irmo bihurtu denean bakarrik izango dituela erabateko ondorioak, baldin eta epaia behin-behinean betearaztea erabaki ez bada.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/201842b6df658542a0a8778d75e36f0d/20260205>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 325/2026 AGE) 89/2026 AGE, 2026ko otsailaren 2koa. Auzietako Sala.**



Zentral sindikal batek 9.882,66 euroko dirulaguntza eta interesak itzuli behar izan zituen, Administrazioak egiaztatu baitzuen zerbitzu bat emateagatik justifikatutako gastua merkatuko balioa baino handiagoa zela, nahiz eta onuradunak hiru aurrekontu eskatu zituen eta eskaintzarik ekonomikoena aukeratu zuen.

Hiru eskaintza aurkezteak eta ekonomikoena aukeratzeak ez du mugatzen edo baztertzen Administrazioak duen ahalmena gastua merkatuko balioekin bat datorrela egiaztatzeko, eta doktrina hau jurisprudentzia-irizpide gisa ezarri da.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31.1 eta 3, eta 33. artikuluen baterako interpretazioak, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren 83.2 artikulua-rekin batera, ezartzen du Administrazioak ahalmena duela kasu guztietan, hiru eskaintza aurkeztu direlako salbuespenik egin gabe, gastua merkatuko balioekin bat datorrela egiaztatzeko, funts publikoen kontrola eta fiskalizazio zuzena bermatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c5200d20faf35b4fa0a8778d75e36f0d/20260212>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 310/2026 AGE) 98/2026 AGE, 2026ko otsailaren 3koa. Auzietako Sala.

Osunako Udalak dirulaguntza bat eskatu zuen hirian esku hartzeko proiektu baterako, baina Andaluziako Juntak ukatu egin zuen eskaera, ez baitzuen aurkeztu dirulaguntzaren ondoriozko konpromisoak onartzea baimentzen zuen udalbatzaren akordioa, eta eskaera alkateak bakarrik sinatu zuen.

Ondorioztatzen da deialdiaren oinarriek ezin dutela aldatu legez ezarritako eskumen-araubidea, eta ezin dela eskatu legez eskumena esleituta duenak (kasu honetan, alkateak) ez den beste organo batek abalatztea edo aurkeztea dirulaguntzaren eskaera; beraz, ez dator bat zuzenbidearekin dirulaguntzaren eskaera egiteko udalbatzaren akordioa eskatzea.

Dirulaguntzen ondoriozko konpromisoak eskatzeko eta hartzeko eskumena legez esleitutako organoari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 21. eta 22. artikuluen eta 40/2015 Legearen 8. artikulua-ren arabera. Artikulu horietan esaten da eskumena ukaezina dela eta organo eskudunak gauzatu behar duela. Gainera, dirulaguntza emateko baldintza subjektibo gisa udalbatzaren akordioa eskatzeak ez du lege-estaldurarik eta modu desegokian aldatzen du eskumen-araubidea, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian ezarri den bezala, bereziki 1862/2018 eta 1526/2019 epaietan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6714e32438c3fb16a0a8778d75e36f0d/20260212>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 269/2026 AGE) 104/2026 AGE, 2026ko otsailaren 4koa. Auzietako Sala.

Enplegu Zentro Berezien Konfederazio Nazionalak aurka egin zion Palentziako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Gerentziaren mendeko zentroak garbitzeko zerbitzurako kontratazio publikoko prozedura batean gizarte-ekimenekoak ez diren enplegu-zentro bereziak baztertzeari; bazterketa hori 9/2017 Legean ezarritako kontratuen erreserban oinarrituta zegoen, gizarte-ekimeneko zentroyen aldekoa soilik.

Ondorioztatzen da kontratu publikoak gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat soilik erreserbatzeak ez dituela tratu-berdintasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak urratzen. Aurretiko doktrina berresten da eta ildo horretatik finkatzen da jurisprudentzia.

Erabakia 2014/24/EB Zuzentarauaren 20. artikuluaen interpretazioan eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2021eko urriaren 6ko Epaian oinarritzen da alde batetik, estatu kideei aukera ematen baitiete kontratuak erreserbatzeko baldintza gehigarriak ezartzeko, baldin eta berdintasun- eta proportzionaltasun-printzipioak errespetatzen badituzte, eta, bestetik, gizarte- eta enpresa-ekimeneko zentroyen arteko lege-bereizketaren justifikazio objektibo eta arrazoizkoan, irabazi-asmorik gabeko izaeran eta etekinak berrinbertituz desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko konpromisoan funtsatuta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/154960f30f9e07fba0a8778d75e36f0d/20260212>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 271/2026 AGE) 105/2026 AGE, 2026ko otsailaren 4koa. Auzietako Sala.

Espainiako Atoiontzien Elkarte Nazionalak (ANARE) aurka egin zion Balear Uharteetako Portu Agintaritzak larrialdi-prozedura baten bidez aldi batean laguntzeko emandako atoiiontzi-kontratu publiko baten zuzeneko adjudikazioari, auzitan aritzeko legitimazio aktiboaren gabezia alegatuz, bere ahalmen prozesalen estatutu-zehaztapenik eza zela eta.

Zehazten da ez dela beharrezkoa elkartearen estatutuek jarduketa juridikorako aukerak indibidualizatzea legitimazio aktiboa egon dadin; nahikoa da elkartekideen interes kolektiboak ukituta egotea eta estatutuetakoko helburuek interes horien defentsa jasotzea, eta, hala, jurisprudentzia-doktrina argi bat ezartzen da.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen 19.1.b) artikulua interpretazioak, Konstituzioaren 24.1 artikuluaekin bat etorritik, legitimazio aktiboaren hautemate malgua eta kasuistikoa ahalbidetzen du, bereziki kontratazio publikoaren arloan, lehia askearen printzipioa babesten baita, eta aitortzen da nahikoa dela merkatuan enpresen interes kolektiboak defendatzea akzio judiziala legitimatzeko, estatutuetan zerranda xehatua eskatu gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c723cedf644d09f4a0a8778d75e36f0d/20260212>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 272/2026 AGE) 106/2026 AGE, 2026ko otsailaren 4koa. Auzietako Sala.

Extremadurako Arkitektoen Elkargo Ofizialak aurka egin zion Extremadurako autobus-geltokietan irisgarritasuna hobetzeko obrak idazteko eta gauzatzeko lizitazio publikoari, zalantzan jarritzen baitzuen adjudikazio-irizpideen balorazioa, arkitektura-zerbitzuen izaera intelektualarekin lotuta.

Auzitegi Gorenak kasazio-doktrina ezartzen du, eta zehazten du arkitektura-zerbitzuak izaera intelektualeko prestazioak direla Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta, beraz, kalitate-irizpideek eskaintzen balorazioan eman daitekeen puntuazioaren % 51 izan behar dutela gutxienez; hala, aurretiko epaia baliogabetzen da eta aurreko interpretazioa aldatzen da.

9/2017 Legearen 41. xedapen gehigarriak berriaz aitortzen du arkitektura-zerbitzuen izaera intelektualak, eta 145.4 artikulua ezartzen du prestazio intelektualak dituzten kontratuetan kalitate-irizpideek puntuazioaren % 51 izan behar dutela gutxienez; interpretazio hori jabetza intelektualari lotutako sormenaren edo berrikuntzaren eskakizunari gailentzen zaio, Auzitegi Gorenaren doktrina berretsiarekin eta arauaren literalasunarekin bat.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f05a3a431702d8eda0a8778d75e36f0d/20260212>



- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 270/2026 AGE) 101/2026 AGE, 2026ko otsailaren 4koa. Auzietako Sala.

Ibilgailuentzako erregaiaren txikizkako merkataritzan aritzen den enpresa batek lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostenak aurkeztu zituen, araudi aplikagarriaren arabera, eta, ondoren, lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatea kontrolatzeko eta jarraipena egiteko piezometroak instalatzeko betebeharra ezarri zuen Administrazioak. Errekurtso hori ezetsi egin zen bide administratiboan eta judizialean.

Jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen da interesdunak eskatuta jo behar dela hasitzat lurzoruen egoerari buruzko txostenak aurkeztearen ondorioz hasitako administrazio-prozedura; hala, errekurritutako epaia berresten da, eta ofizioz iraungipenarekin hasitako prozeduratzat hartzea baztertzen.

Egoerari buruzko txostenak aldi behin bidaltzea administrazio-kontrol jarraituko prozedura baten barruan sartzen da, interesdunaren eskariz alde aurretik baimendutako jarduera bati lotuta. Horrenbestez, ez da prozedura ofizioz hasten duen salaketa bat, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 25.1.b), 54., 58. eta 62.1 artikuluei eta 9/2005 Errege Dekretuaren 3.4 artikuluari jarraituz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/eec756794925e44fa0a8778d75e36f0d/20260212>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 318/2026 AGE) 114/2026 AGE, 2026ko otsailaren 5koa. Auzietako Sala.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak (GSDN) ofizioz erabaki zuen SERVICARNE kooperatibako 283 bazkideri alta ematea Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean, SADA PA ANDA-LUCÍA S.A. merkataritza-sozietateko besteren konturako langile gisa, ikuskapen baten ondoren ikusi baitzuen harremana lanekoa zela, ez kooperatiboa.

Auzitegi Gorenak zehazten du administrazioarekiko auzien auzitegiak ez daudela lotuta Lan Arloko Jurisdikzioaren epai ez-irmoen bidez, eta kontua ebatz dezaketela ondorio aurrejudizialerako, prozesua eten gabe, nahiz eta lan-arloko balorazioarekiko edozein desadostasun arrazoi behar duten; beraz, berretsi egiten da harremana ez-lanekotzat jo zuen lan-arloko epai ez-irmoan oinarrituta ofizioko altak baliogabetu zituen epaia.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen 4. artikuluan eta Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen 1. eta 2. artikuluetan oinarritzen da, gauza epaituari eta babes judizial eraginkorrari buruzko doktrina konstituzionalarekin batera, zeinak ezartzen baitu ebazpen irmoek baino ez dutela erabat lotzen, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioak kontu aurrejudizialak jakin ditzakeela prozesua eten gabe, babes judizial eraginkorra bermatzeko eta bidegabeko atzerapenak saihesteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/25f3cb95d29e5f97a0a8778d75e36f0d/20260212>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 400/2026 AGE) 155/2026 AGE, 2026ko otsailaren 16koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak ezartzen du lizitzaile batek kontratuaren lizitazio-prozeduratik bera baztertzeko erabakiaren aurka errekurtsio berezi bat jartzen badu, Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegiak errekurtsio hori ezesteko ebazpena emango duela, eta hala erabakitako bazterketa inpugnatu egin ahal izango dela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 59.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela egiten ez bada, ebazpena irmo bihurtuko da, eta ezingo da bazterketa berriro inpugnatu, geroko adjudikazio-egintzaren aurkako beste errekurtsio berezi baten bidez.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5b325076b33bd592a0a8778d75e36f0d/20260219>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 733/2026 AGE) 170/2026 AGE, 2026ko otsailaren 17koa. Auzietako Sala.**

Auzitegi Gorenak berresten du ondorio horietarako araudian sartutako berritasunarekin batera ez zela zuzenbide iragankorreko araurik ezarri, eta, hori horrela izanik, haren ondorioak “ad futurum” hedatu zirela, hau da, indarrean sartu zenetik aurrera, eta, horrenbestez, berritasun horrek ez duela aukerarik ematen atzeraeraginezko aplikazio absoluturik edo maila maximokorik egiteko, eta, beraz, haren berritasunak hirurteko berriak aitortzeko balio duela, baina ez jada burututa dauden ondorioetarako, hau da, jada aitortuta dauden hirurtekoetarako (4.-5. OJ). Langile lan-kontratudun gisa emandako zerbitzuengatik hirurtekoak aitortzeko eskubidea ordaindu behar da, karrerako funtzionario bihurtu ondoren, burutu ziren uneko zenbatekoan, kontuan izanik hirurtekoak, beren izaeratik, une horretan funtzionarioa kide den kidego edo taldearen inguruabarren arabera horretarako behar den zerbitzu-denbora betetzean sortzen direla, eta, une horretatik aurrera, funtzionarioaren ordainsari-eskubideetan sartzen da. Horrela, funtzionarioak hirurtekoak jasoko ditu etorkizunean, bere funtzionario-ibilbidearen gorabeherak edozein direla ere (talde berean segi edo taldez aldatu...). Hirurtekoen zenbatekoa eguneratzea dela eta, dagoeneko burututa daudenekiko, zeinak langile lan-kontratudun gisa zerbitzuak eman ziztuztenean sortu baitziren, nahiz eta gero funtzionario publiko bihurtu, ezin da aurrera egin; izan ere, defendatzen zen hitzarmenen aplikazioak berekin ekarriko luke funtzionario publikoen estatutuaren muineko alderdi bat, ordainsariak, haien berezko funtzio publikoaren sistematik bereiztea (6. OJ).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1e8ea55de1555d15a0a8778d75e36f0d/20260226>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 793/2026 AGE) 169/2026 AGE, 2026ko otsailaren 17koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du kontratuen adjudikazioa, oro har, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onenean oinarritu behar dela, eta, horretarako, legegileak irizpide ekonomiko eta kualitatibo gisa sailkatzen dituen adjudikazio-irizpide batzuk zerrendatu ditu adibide moduan –ez zehatz-mehatz–. Araudian zerrendatutako edozein adjudikazio-irizpide kualitatibo kalitatearekin lotuta egon daiteke, araudiak eskatzen duen zentzuan, kasuan kasuko kontratuaren izaeraren, motaren eta xedearen arabera, baldin eta kontratuaren xedeari benetan lotuta badago eta prestazioaren kalitatean benetako eragina badu, eta hori behar bezala justifikatu beharko da kontratazio-espeditentean. Kontratu-pleguetan entregatzeko edo egikaritzeko epearen murrizketa konfiguratzea, izaera intelektualeko prestazioak xede dituzten zerbitzu-kontratuetan, kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileen esperientziarekiko erreferentziarik edo loturarik gabe, kalitatearekin lotutako adjudikazio-irizpide bat izan daiteke, kontratuaren xede zehatzaren arabera, baldin eta kontratuaren edo prestazioaren egikaritzearen kalitatean modu erreal eta eraginkorrean haren mesederako eragiteko modukoa bada, eta garrantzitsua bada kontratazioan lortu nahi den interes publikoa hobeto asetzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5e258131bda88cc7a0a8778d75e36f0d/20260305>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 889/2026 AGE) 168/2026 AGE, 2026ko otsailaren 17koa. Auzietako Sala.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezartzen du autonomia-erkidego batean kontratu bat dela-eta ebazpen-prozedurak iraun dezakeen gehieneko epea, legean iraupen-epe espezifikorik zehaztuta ez badu, hiru hilabetekoa izango dela, 39/2015 Legea osagarri gisa aplikatzekoa baita, beste lege-aurreikuspen espezifikorik ezean. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako zortzi hilabeteko epea ez da aplikagarria autonomia-erkidegoetako administrazioek sinatutako kontratuetan, hala xedatu baitzen Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 18ko 68/2021 Epaian; arau osagarria eta prozedurazkoa da, eta ezin da oinarritzat jo kasu honetan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a2b90aefe49986f0a0a8778d75e36f0d/20260306>

Justizia-auzitegi nagusiak

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 28/2026 Epaia) EAEko JANen 1/2026 Epaia,

2026ko urtarrilaren 2koa. Auzietako Sala.

Pertsona batek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboak premiamendu-probidentzia bati buruz emandako ebazpenaren aurka, jakinarazpenetarako izendatutako helbide batean 2023ko abuztuan egindako administrazio-jakinarazpenean akatsak zeudela alegatuz, eta jakinarazpenaren balioa zalantzan jarriz, ediktu bidezko jakinarazpenera jo aurretik beste jakinarazpen-bide batzuk agortu ez zirelako.

Baliozkotzat jotzen da Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera egindako administrazio-jakinarazpena, eta ezetsi egiten da auzi-jartzaileak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Jakinarazpenak bete egin zituen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42.2 eta 44. artikuluetako baldintzak; bi saiakera egin ziren egun eta ordu desberdinetan, abisua utzi zen postontzian, eta zerrendan egon zen hurrengo egunera arte, eta ezin da eskatu bermatuta ez dauden bide alternatiboak agortzea; gainera, abuztua ez da baliogabea jakinarazpenetarako, lege beraren 30. artikuluari jarraituz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/16ab47e06fdd58f5a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 1/2026 Epaia) EAEko JANen 7/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Pertsona bati premiamendu-prozedura bat aplikatu zitzaion zerga-zorrek zirela eta. Prozedura horretan, bere jabetzako higiezin bat jarri zen enkantean; hasieran, pertsona horri lotutako merkataritza-sozietate bati adjudikatu zitzaion, baina adjudikazioa baliogabete egin zen, ez ordaintzeagatik, eta higiezina bigarren eskaintzailerik onenari adjudikatu zitzaion. Horrenbestez, eztabaida sortu zen adjudikazioa formalizatzearekin lotutako administrazio-komunikazio baten aurkako errekurtsoen onargarritasunari buruz.

Administrazio-komunikazioa izapide hutseko egintzat jotzen da, eta, beraz, ezin da aparteko errekurtsoak jarri; berretsi egiten da ez dela onartzen komunikazio horren aurkako erreklamazio ekonomiko-administratiborik.

Auzitegiaren erabakiaren oinarria da komunikazioak ez duela eduki erabakitzaile edo erabakigarriarik, baizik eta aurretiko ebazpenei ondorioak emateko izapide bat dela, eta errekurtsoak egin-tza erreal eta independenteen aurka zuzendu behar direla, Foru Ogasun Publikoari buruzko Lege Orokorraren 233. artikuluan eta aplikatu beharreko jurisprudentiaren arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/adb1744c45a98d11a0a8778d75e36f0d/20260119>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 2/2026 Epaia) EAEko JANen 10/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi egiten du epaimahai kalifikatzaileak egindako balorazioa; izan ere, ariketa praktikoen balorazioan espezializatutako organoen diskrezionalitate teknikoa irizpide arautuekiko eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekiko egokitasuna egiaztatzen mugatzen da, eta ondorioztatzen da ariketa-ren idazketa ez zela izan ez nahasia, ez arbitrarioa, eta balorazio hori arrazoitua izan zela eta uniformeki aplikatu zitzaizela hautagai guztiei.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8a9fb6979c59e1fda0a8778d75e36f0d/20260119>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 17/2026 Epaia) EAEko JANen 4/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoak zigorra ezarri zion abokatu bati (ofiziozko txanda eten eta handik baztertea), eta hark zalantzan jartzen ditu ebazpen horren jakinarazpen elektronikoaren baliokotasuna eta data, izendatutako ordezkariak jakinarazpenak bere bulego profesionalean jasotzeko eskatu baitzuen, eta ez posta elektronikoz.

Jakinarazpen elektronikoaren edukira benetan sartu zen data (maiatzak 13) jotzen da balio duen jakinarazpen-datatzat, ez bidalketa-data (maiatzak 9); beraz, epez kanpo aurkezteagatik gora jotzeko errekurtsua onartu ez zuen ebazpena baliogabetu egin behar da, eta errekurtsua izapidetu egin behar da. Testuinguru honetan, aldaketa bat ezarri da jakinarazpen elektronikoaren baliokotasunari buruzko interpretazioan.

Jakinarazpen elektronikoak bete egin behar ditu 39/2015 Legearen 41. eta 43. artikuluen arabera eskuragarri jartzeko eta sarbide eraginkorra izateko legezko baldintzak, eta jakinarazpen elektronikoko sistema gaiturik ezean, benetako sarbidearen data hartu behar da kontuan epea zenbatzeko, babes judizial eraginkorrerako eta segurtasun juridikorako eskubidea bermatzeko, aplikatu beharreko konstituzio- eta jurisprudentzia-doktrinari jarraituz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bd824c7ef4ad067da0a8778d75e36f0d/20260122>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 18/2026 Epaia) EAEko JANen 20/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Partikular batek administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zuen Pasaiaiko Udalak bere taxi-lizentzia baliogabetzearen aurka, hauek argudiatuz: deuseztasuna aurretiko jarduketetan, datu fiskalen erabilera desegokia baimenik gabe, eta prozedura judizialean frogak bidegabe onartzea.

Apelazio-errekurtsua ezesten da eta taxi-lizentziaren baliogabetzea berresten da, uste baita ez

dagoela defentsa-gabeziarik eta deuseztasunik administrazio-jarduketetan, ezta prozedura judizialean frogak onartzean ere.

Auzitegiak bere erabakia oinarritzeko baliatu duen jurisprudentzia-doktrinak hauek eskatzen ditu: apelatutako epaiaren kritika zehatza, taxi-lizentziaren izaera jarraitua (udal-kontrol iraunkorra ahalbidetzen duena), erabilitako datu fiskalen udal-titulartasuna, eta administrazio-espedienteaz harago bide judizialean frogak proposatzeko aukera, kontraesaneko prozedura eta babes judizial eraginkorra bermatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/eb471c9406aae84ba0a8778d75e36f0d/20260122>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 26/2026 Epaia) EAEko JANen 13/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Auzi-jartzaileak udalari eskatu zion euri-urak birkanalizatzeko eta bere lursailaren zati bat legez kanpo okupatu zela deklaratzeko, bide publiko batean horma bat eta arrapala bat lizentziarik gabe eraiki zirelako eta, hori egitean, drainatze-sistema aldatu zelako eta kalteak eragin zirelako bere lursailean. Udalak ez zion erantzun eskaerari, eta horrek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa eragin zuen. Administrazioak onartu zuen arazoa zegoela eta obrak egin behar zirela, baina argudiatu zuen ezinezkoa zela hirugarren jabeen baimenik gabe jardutea, eta ukatu egin zuen zuzeneko erantzukizuna drainatzea aldatu zuten obra pribatuetan.

Auzitegiak arrazoa ematen dio auzi-jartzaileari, udalak bide publikoa zaintzeko eta mantentzeko duen betebeharran, euri-urak behar bezala kanalizatzea barne, inguruko lursailetan kalterik ez eragiteko. Errekonoitzen da Administrazioak onartu duela arazoa dagoela eta obrak egin behar direla, baina konponbide teknikoa eta egikaritzea Administrazioaren esku daude, eta hark zuzenbidearen arabera jardun behar du. Ez du aurrera egin legez kanpoko okupazioa eteteari buruzko uziak, frogarik ez dagoelako eta Administrazioari esleitu zaiolako. Epaiak partzialki baies ten du apelazio-errekurtsoa, auzialdiko epaia baliogabetzen du eta udala kondenatzen du kanalizatorako beharrezkoak diren obrak egitera, kosturik ezarri gabe. Ez da doktrina-aldaketarik ezarri, baizik eta behar bezala mugatzen dira bide publikoen zainketaren eta euri-uren kudeaketaren arloko administrazio-eskumena eta -betebeharrak.

Epaiak nabarmentzen du toki-administrazioak betebeharra duela udal-bide publikoak zaintzeko eta mantentzeko, euri-uren kanalizazioa barne, baita lurzoru urbanizaezinean egonda ere, ekin tzarik ezak hirugarrenei kalteak eragiten badizkie, eta argitu egiten du administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eremu honetako omisio administratiboaren aurkako erreklamazioez jakiteko duen eskumena.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/55c8dcc713dde625a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 34/2026 Epaia) EAEko JANen 3/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Euskal Herriko Unibertsitateak Palestinaren aldeko manifestu bat onartu zuen, konpromiso zehatzak jasotzen zituena, hala nola Palestinan gizateriaren aurka egiten ari diren krimenak gaitzesten ez zituzten unibertsitate eta erakunde israeldarrekiko harremanak berrikustea eta etetea. Elkarte errekurtsogileak manifestu hori inpugnatu zuen, kanpoko ondorio juridikoak sortzen zituela eta oinarrizko eskubideak urratzen zituela argudiatuz; Unibertsitateak, berriz, barne-egintza bat zela defendatu zuen, eta ezin zela inpugnatu. Lehen auzialdiko epaitegiak onartezintzat jo zuen errekurtsua, iritzita manifestua kanpoko ondorio juridikorik gabeko barne-borondataren adierazpen hutsa zela, baina Salak erabaki hori baliogabetu zuen.

Salak partzialki ematen dio arrazoia errekurtsua jarri duen elkarteari, uste baita manifestua ez dela barne-egintza edo egintza programatiko hutsa, baizik eta Unibertsitatearen jardura baldintzatzen duten eta hirugarrenen eskubide eta interes legitimoei eragiten dieten konpromisoak jasotzen dituela, bereziki unibertsitate eta erakunde israeldarrak selektiboki baztertzeagatik. Onartzen da jardura horrek berdintasunaren eta askatasun ideologikoaren printzipioak urratzen dituela, unibertsitate-autonomiaren berezko diskrezionalitatea gaindituz. Horregatik, administrazioarekiko auzi-errekurtsua onargarria dela deklaratzeko da, eta konpromiso horiek jasotzen dituen manifestuaren bosgarren apartatua baliogabetzen da. Ez da kosturik ezarri. Epaia aldaketa bat dakar unibertsitateko gobernu-egintzen inpugnagarritasunari buruzko interpretazioan; izan ere, hasiera batean barnekotzat jotzen badira ere, kontrol judizialaren xede izan daitezke oinarrizko eskubideei eragiten badiete eta kanpoko ondorio juridikoak sortzen badituzte.

Epaia nabarmentzen du unibertsitateko gobernu-egintzen gaineko kontrol judiziala egiteko aukera (hasiera batean borondate-adierazpentzat edo barne-egintzat jotzen badira ere, unibertsitatearen jardura baldintzatzen duten eta oinarrizko eskubideei eragiten dieten konpromisoak jasotzen badituzte), eta unibertsitatearen autonomiari mugak jartzen dizkio, neutraltasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/095b6e0940fb2536a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 27/2026 Epaia) EAEko JANen 8/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Getxoko Udalak bi obra-kontratu txiki adjudikatu zizkion enpresa berari, bakoitza 40.000 euro ingurukoa, udalerriko zenbait gunetan argiteria publikoa berritzeko. Zinegotzi batek adjudikazio horiek inpugnatu zituen, SPKLren 118. artikuluan jasotako kontratu txikien legeko muga saihesteko legez kontrako zatikatzea zela argudiatuta. Administrazioak defendatu zuen jarduketek behar desberdinei erantzuten zietela (bat planifikatua eta bestea bizilagunen kexen ondoriozkoa), eta ez zegoela kontratua zatikatzeko asmorik. Auzialdiko epaiak errekurtsua ezetsi zuen, baina

apelazio-salak baliogabetu egin zuen erabaki hori, iritzita unitate funtzional bat zegoela bi kontratuen artean, eta zatikatzea arrazoi batengatik egin zela, publizitatearen eta adjudikazio-prozeduraren baldintzak saihesteko.

Apelazio-salak baietsi egiten du zinegotzi errekurtsogileak jarritako errekurtsua, eta baliogabetu egiten du haren inpugnazioa ezetsi zuen auzialdiko epaia. Ondorioztatzen da unitate funtzional bati dagozkiola Getxoko Udalak adjudikatutako bi kontratu txiki horiek, biek helburu baitute udalerriko zenbait gunetan argiteria publikoa berritzea, jarduketa-plan bakar baten barruan. Kontratu horiek zatikatzea, kontratu txikien 40.000 euroko muga kuantitatiboaren azpitik egoteko helburuarekin, SPKLren 99.2 artikulua urraketa da, zeinak debekatu egiten baitu zatikatzea publizitate- eta prozedura-baldintzak saihesteko. Premian edo aurrekontu-kredituen existentzian oinarritutako justifikazioak ez du debeku horretatik salbuesten, kontratu txikiak ez baitira erabiltzen premiazko beharrei erantzuteko, eta prozedura espezifiko bat dago horretarako. Beraz, inpugnatutako dekretuak baliogabetzen dira eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua baiesten da. Ez da kosturik ezarri. Auzitegiak kontratu txikien erabileraren interpretazio murriztaileari eta zatikatzearen debekuari buruzko doktrina ezartzen du unitate funtzionala dagoen kasuetarako, aurrekontuaren edo premiaren justifikazioa alde batera utzita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bcfa39710846a4b5a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudenzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 23/2026 Epaia) EAEko JANen 17/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Urbaplus merkataritza-sozietateak inpugnatu egin zuen Iruña Okako Udalaren ebazpena, zeinak ezetsi egin baitzuen Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren 81.646,41 euroko likidazioa baliogabetzea. Ebazpen horren jakinarazpena Urbaplusen egoitza sozialean egin zen, eta Marisa izeneko pertsona batek jaso zuen, nahiz eta erakundearekin lan-harremanik ez izan. Urbaplusek administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zuen legezko bi hilabeteko epetik kanpo, jakinarazpenean akatsak zeudela eta likidazioaren deuseztasuna argudiatuz. Auzialdiko epaiak baietsi egin zuen errekurtsua, baina udalak apelazioa aurkeztu zuen, errekurtsua epez kanpo jarri zela eta jakinarazpena baliozkoa zela argudiatuz.

Auzitegiak arrazoa ematen dio Iruña Okako Udalari, eta Urbaplusen errekurtsua baietsi zuen auzialdiko epaia baliogabetu du. Ondorioztatzen da baliozkoa dela merkataritza-sozietatearen egoitza sozialean egindako jakinarazpena, eta ondorioak dituela entregatzen den egunetik, nahiz eta egiaztatutako lan-harremanik ez duen pertsona batek jaso. Ez da beharrezkoa Administrazioak egiaztatzea zer harreman dagoen hartzailearen eta erakundearen artean. Halaber, zehazten da administrazioarekiko auzi-errekurtsua legezko bi hilabeteko epetik kanpo jarri zela, datatik datara zenbatuta, eta horrek esan nahi du ezin dela onartu. Beraz, inpugnatutako likidazioa eta premiamendu-probidentzia irmoak eta onartuak dira. Epaiak udalaren apelazio-errekur-

tsoa baiesten du, eta onartezin deklaritzen du Urbaplusen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, epez kanpo aurkezteagatik, eta azken honi ezarri dizkio kostuak. Ez da doktrina-aldaketarik ezarri; aitzitik, berretsi egiten da epe prozesalen interpretazio zorrotza eta egoitza sozialean egindako administrazio-jakinazpenen baliozkotasun-presuntzioa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6294b1269b2a29e5a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAeko JANen 42/2026 Epaia) EAeko JANen 167/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak ezetsi egiten du errekurtsogileak jarritako apelazio-errekurtsoa, eta berretsi egiten du auzialdiko epaia. Proporzionaltzat eta zuzenbidearen arabera jotzen da Ertzaintzaren lanpostuetan sartzeko 1. hizkuntza-profila eskatzea, derrigortasun-data igarota izanik; izan ere, baldintza hori betetzen duten lanpostuen ehunekoa bat dator euskal biztanleen euskararen eza-gutzaren estatistika-banaketarekin, eta baldintza hori ez duten lanpostuen kopuru nahikoa dago euskal hizkuntza ezagutzen ez duten izangaiatzat. Horrez gain, onartzen da inpugnatutako administrazio-egintza ez dela ez arbitrarioa, ez neurritz kanpoko; aitzitik, Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan aldarrikatutako hizkuntza-koofizialtasuna bermatzera bideratuta dago. Hori horrela izanik, ez da egokia epairik ematea ez emakumeentzat plazak erreserbatzeari buruzko alegazioaz, ez tokiko polizien plazen aldeaz, errekurtsogilearen uzia Ertzaintzaren plazetara mugatzen baita. Epaia errekurtsoa osorik ezestekoa da, doktrina aldatu edo doktrina berria ezarri gabe, baizik eta jurisprudentzia eta araudi aplikagarria berretsita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6f5a0aa671807751a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAeko JANen 56/2026 Epaia) EAeko JANen 4/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa, eta ezetsi egiten du eskatutako kautelazko neurria hartzea errekurtsogileak hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, legez ezarritako gehieneko adin-muga gaintu arren, ez baitago eskubide onaren itxurarik; izan ere, kautelazko bidean baliatzen den uziaren oinarri juridikoari itxurazkoa izan dadila eskatu behar zaio, hau da, zuzenean ondoriozta dadila, eta ebidentzia hautemangarriarekin, oro har, hori aztertzen dutenen artean. Horrek kanpoan uzten ditu araudiak edo hura interpretatzen eta aplikatzen duen jurisprudentziak ebidentzia hori hautemateko aukerarik ematen ez duten kasuak. Eta, are gehiago, jurisprudentzia-doktrinak kautelazko babesa eskatzen duen alderdiaren uziaren oinarriaren kontrakoa adierazten duenean, hain justu. Segurtasun-kidego eta -indarretan sartzeko gehieneko adina dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiarentzat, murrizketa hau egokia eta proportzionala da; izan ere, helburu du kidegoaren izaera operatiboari eustea, bereziki kontuan hartuta agenteek zerbitzua uzteko erraztasunak dituztela 56 urtetik aurrera, eta,

horrela, beren aldi aktiboa murrizten dela. Bestalde, Auzitegi Gorenak 38 urteko adin-mugaren legezkotasuna berretsi zuen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/44fbae58061ca4d5a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 35/2026 Epaia) EAEko JANen 6/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi egiten du udalak ez duela industriako hondakin-urak tratatzeko nahitaezko eskumena, hiriko edo etxeke hondakin-urak tratatzeko betebeharra baino ez duela, eta udaleko hondakin-uren araztegia ez dagoela ez dimentsionatuta, ez ekipatuta industriako hondakin-urak tratatzeko; izan ere, toki-erakundeek etxeke hondakinak tratatzeko betebeharra dute soilik, industria-hondakinak alde batera utzita. Gainera, txosten teknikoek egiaztatzen dutenez, udaleko hondakin-uren araztegiak ez du industria-urak tratatzeko gaitasun tekniko eta operatiborik, eta araudi aplikagarriak argi eta garbi mugatzen du zein diren udalen eskumenak hiriko hondakin-uren arloan, ez industriakoetan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c79680463c2247dda0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 44/2026 Epaia) EAEko JANen 2/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Errekurtsogilea Euskal Autonomia Erkidegoko suhiltzaile izateko hautaketa-prozesutik kanpo utzi zuten, nahitaezkoa eta baztertzaila zen proba psikotekniko bat ez gainditzeagatik. Proba horrek lau ariketa ditu, lau motatako gaitasunak ebaluatzeko: arrazoitzeko gaitasuna, eta gaitasun mekanikoak, espazialak eta ahozkoak. Bazterketa inpugnatu zen, argudiatuz proba psikoteknikoak ez lukeela baztertzaila izan beharko ariketa bakoitzean, eta erabaki administratiboa ez zela nahikoa arrazoitu judizio teknikoan.

Auzitegiak ezetsi egiten du errekursogileak jarritako apelazio-errekurtsua. Argudiatzen da ariketa bakoitzean proba psikotekniko baztertzailak sartzea baliozkoa dela deialdiaren oinarrietan hala ezartzen bada, kontuan izanik ariketa bakoitzak suhiltzaile-lanpostua betetzeko funtsezkoak diren trebetasun desberdinak ebaluatzen dituela. Ez dira merezimendu- eta gaitasun-printzipioak urratzen, gutxieneko kompetentzia bat ziurtatzen baita eskatzen diren trebetasun guztietan. Era berean, baztertu egin da judizio teknikoa nahikoa arrazoitu ez dela dioen alegazioa, test-motako proban objektiboki zuzenak diren erantzunak daudelako eta balorazioa irizpide argi eta ezagunen arabera egiten delako. Epaiak berretsi egiten ditu bai hautaketa-prozesuaren baliozkotasuna, bai errekursogilearen bazterketa, proba psikoteknikoa ez gainditzeagatik. Ez da egin doktrina-aldaketarik edo -ezarpenik, aurretiko jurisprudentzia berretsi baizik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7ece7c78f1dfaa3da0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 36/2026 Epaia) EAEko JANen 18/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Klausula espezifiko eta orokorretan aurreikusitako administrazio-kontratu baten luzapena nahitaezkoa da kontratistarentzat, baldin eta Administrazioak ezarritako gutxienerako aurreabisua betetzen badu, eta ez da egokia desoreka ekonomikoagatik “rebus sic stantibus” klausula aplikatzea, alegatutako arrazoiak, hala nola soldata-igoerak eta inguruabar ekonomikoak, aurreikusitako kontratua adjudikatzeko eta sinatzeko unean.

Epaia nabarmentzen du garrantzitsua dela inguruabar ekonomikoak aurreikusteko modukoak izatea administrazio-kontratuaren “rebus sic stantibus” klausula aplikatzean, eta azpimarratzen du ez dela egokia desoreka ekonomikoagatik konpentsazioa, baldin eta alegatutako arrazoiak ezagunak edo aurreikusgarriak baziren kontratuaren unean, eta berretsi egiten du kontratua luzatzeko betebeharra, baldin eta kontratuan eta legean aurreikusitako baldintza formal eta funtsezkoak betetzen badira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/19620f0ecf4a07d1a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 20/2026 Epaia) EAEko JANen 14/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 7koa. Auzietako Sala.

Epaia nabarmentzen du, zergei buruzko foru-arauden konstituzionaltasuna zalantzan jartzen duten administrazioarekiko auzi-errekurtsoetan, araudiaren aplikazioaren azterketa zehatz eta kasuistikoa aurkeztu behar dela, eta konstituzionaltasunaren zeharkako kontrola, berriz, kontu aurrejudiziala planteatzeko prozedura egokiaren bidez egin behar dela, beste estatu-araudi baten aurka egiteke dauden errekurtsoetan oinarritutako inpugnazio generikoak baztertuz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/05446ba8a1e57331a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 57/2026 Epaia) EAEko JANen 21/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 8koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak arrazoi ematen die udalari eta amari, eta berretsi egiten du prozesutik kanpoko gogobetetzeagatik prozedura amaitutzat jotzen duen autoa. Horren oinarria da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ondorengo administrazio-aitorpenak, ordenamendu juridikoa nabarmen urratzen ez duenak, prozesua amaitzea legitimatzen duela. Egiatztatutzat jotzen da errodako alta baliogabetzeko administrazio-ebazpena prozedura-akats larri batekin eman zela, hau da, entzunaldiaren izapidea ez betetzearekin, eta horrek defentsa-gabezia eragin ziola amari. Horregatik, administrazio-aitorpenak defentsa-gabezia hori zuzentzen du eta prozesutik kanpoko gogobetetzea justifikatzen du. Aitak aitorpenarekiko duen desadostasuna bideratzeko, administrazio-dekretuaren aurkako errekurtsoa aurkeztu behar da, ez auto judizialaren aurkako



apelazioa. Ondorioz, ezetsi egiten da apelazio-errekurtsoa, eta kostuak ezarri zaizkio apelatzaileari. Ez da egin doktrina-aldaketarik edo -ezarpenik, AAJLren 76. artikulua zuzenean aplikatu baizik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b0404ba049d105d1a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 55/2026 Epaia) EAEko JANen 23/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 9koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak ezetsi egiten du elkarteak aurkeztutako apelazio-errekurtsoa, eta berretsi egiten du Administrazioak ezarritako zehapena. Argudiatzen da udal-araudia (kartelak jartzeko aurretiazko baimena exijitzen duena eta udal-lokaletan egintza politikoak egitea debekatzen dituen) konstituzionala dela eta ez dagoela aurretiko zentsurarik; izan ere, interes publikoa eta jabari publikoko ondasunen erabilera egokia babesten ditu. Burututako ekitaldiak, kultura-elementuak izan arren, helburu politiko argia izan zuen, kartelen edukia eta ekitaldiaren testuinguruak agerian utzia, eta horrek zehapena justifikatzen du. Elkartearen erantzukizuna da, halaber, baimenik gabe jarritako kartelak ez kentzea. Gainera, ez da errugabetasun-presuntzioa urratzen, ezta “non bis in idem” printzipioa ere, prozedura penal eta administratiboek ondasun juridiko desberdinei erreparatzen baitiete. Hala bada, berretsi egiten da zehapena, eta kostuak ezarri zaizkio apelatzaileari. Ez da egin doktrina-aldaketarik edo -ezarpenik, jada finkatuta dauden printzipioen aplikazio koherentea baizik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/13f41181d788a541a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 137/2026 Epaia) EAEko JANen 1/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 9koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak ezetsi egiten du apelazio-errekurtsoa, eta berretsi egiten du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa atzera bota zuen auzialdiko epaia. Argudiatzen da administrazio-ebazpena nahikoa arrazoituta dagoela, administrazio-arrazoiei buruzko jurisprudentiaren arabera, irizpide argiekin, elkarriketaren grabazioarekin eta erregistroarekin, eta balorazio negatiboaren justifikazioarekin. Gainera, baztertu egin da omisiozko inkongruentziaren alegazioa, aurkeztutako dokumentu-froga hautaketa-prozesuaren beste fase bati buruzkoa delako (auziaren xede ez dena), eta haren berariazko baloraziorik eza inplizituki ezetsizat jotzen delako. Beraz, ez da urratzen babes judizial eraginkorrerako eskubidea, eta ez dago omisio garrantzitsurik. Epaia apelazio-errekurtsoa ezestekoa da, doktrina-aldaketarik edo doktrina berririk ezarri gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b2be837e62b18a17a0a8778d75e36f0d/20260128>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 64/2026 Epaia) EAEko JANen 27/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 12koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak ezetsi egiten du errekurtsogileak jarritako apelazio-errekurtsoa, eta berretsi egiten du lehen auzialdiko epaia. Horren oinarrian dago egonkortzeko hautaketa-prozesua ez gairatzeagatik aldi baterako harremana etetearen ondoriozko kalte ekonomikoa arintzea dela 20/2021 Legearen 2.6 artikuluko konpentsazio ekonomikoaren helburua. Kasu honetan, errekurtsogileak prozesua gairatu zuen, zerrenda osagarrien bidez zerbitzuak ematen jarraitu zuen, eta, azkenean, karrerako funtzionario izendatu zuten; hori horrela izanik, ez zen gertatu arauak konpentsatu nahi duen kaltea. Beraz, ez dago erreklamaturako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik. Epaia apelazio-errekurtsoa ezestekoa da, doktrina-aldaketarik edo doktrina berririk ezarri gabe.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5c3cac5d38f26b03a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 61/2026 Epaia) EAEko JANen 26/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 12koa. Auzietako Sala.

Errenteriako Udalak dirulaguntza bat jaso zuen langabezia zeuden 40 pertsona zenbait lanpostutan kontratatzeko, gutxienez % 40 emakumeak izateko betebeharrarekin. Hiru eskaintza espezifikotan ezin izan zen emakumerik kontratatu, hautagairik ez zegoelako. Lanbideko enplegu-bulegoak egiaztatu zuen hori. Azkenean, 38 pertsona kontratatu ziren, eta, haietatik, 9 emakumeak ziren, % 40ko baldintza bete gabe. Lanbideko dirulaguntzaren murrizketa proportzionala aplikatu zuen, eta udalak, berriz, emakumeen ehunekoa betetzetik salbuestea eskatu zuen, ezintasun objektiboan oinarrituta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/324827a6480a61a7a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 63/2026 Epaia) EAEko JANen 25/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 12koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak arrazoia ematen dio interesdunari, irizita Pasaiako Portu Agintaritzan bete zituen eginkizunak Administrazio Orokorreko Eskalari dagozkiola, ez baitute berariazko titulu akademikorik behar, hau da, zuzendaritza- eta antolaketa-zereginak eta administrazio-ebazpeneko proposamenak izan zirela. Gipuzkoako Foru Aldundiak Administrazio Berezian kokatu nahi zituen funtzio horiek, baina baztertu egin da haren alegazioa. Beraz, berretsi egiten da interesdunaren errekurtsoa partzialki baietsi zuen lehen auzialdiko epaia, eta ezetsi egiten da Foru Aldundiak jarritako apelazio-errekurtsoa. Azken honi ezarri zaizkio prozesuko kostuak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/75310a9fd8f03814a0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 130/2026 Epaia) EAEko JANen 24/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 12koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak arrazoa ematen dio errekurtsogileari, uste baita txandakako osagarria zerbitzua emateko ohiko modalitateari lotutako ordainsari finkoa eta aldizkakoa dela, eta ez aparteko zerbitzuengatik konpentsazioa edo aldi bateko diru-saria. Hortaz, osorik ordaindu behar da aldi baterako ezintasuneko aldietan, lehen hiru hilabeteak barne, deskontuek haren ordainsari-izaera desitxura ez dezaten. Gainera, aitortu egiten da ordainketa bakoitza egin behar zen egunetik aurrerako legezko interesak ordaintzeko eskubidea. Ondorioz, baietsi egiten da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, baliogabetu egiten da errekurritutako ebazpena, eta kostuak ezarri zaizkio demanduari.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cc6446aecdf2620fa0a8778d75e36f0d/20260128>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 66/2026 Epaia) EAEko JANen 4/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 13koa. Auzietako Sala.

Administrazioarekiko auzi-prozesuan kautelazko neurriak hartzea errekurtsorearen xede den administrazio-egintzara mugatu behar da, eta ezin da hedatu prozedura nagusitik kanpoko administrazio-egintza irmo eta inpuernatu gabeetara, salbu eta egiaztatzen bada kalte konponezina edo deuseztasun-itxura nabarmena dagoela, prozesuaren efikazia bermatzeko etendura justifikatzen duena.

Gainera, nabarmendu egiten dira administrazio-egintzaren legezotasun-presuntzioaren printzipioa eta segurtasun juridikoa errespetatzeko beharra. Hori horrela izanik, baliogabetu egiten da kautelazko neurria, eta lehentasuna ematen zaio administrazio-egintzaren betearazteari. Epaia apelazio-errekurtsoa baiestekoa eta kautelazko neurria eman zuen autoa baliogabetzekoa da, eta ez da kosturik ezarri.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3400a07b92b4860ba0a8778d75e36f0d/20260123>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 91/2026 Epaia) EAEko JANen 6/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 13koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak ezetsi egiten du elkarte gastronomikoak jarritako apelazio-errekurtsoa, eta berretsi egiten du txoko-jarduerarako berariazko edo isilbidezko lizentziarik ez zegoela eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren arabera legezkatzea ezinezkoa zela deklaratu zuen auzialdiko epaia. Bi oinarri ditu: batetik, alderdi auzi-jartzaileari dagokion froga-zama, lizentzia bazegoela egiaztatzeko, behar bezala egin ez zena, eta, bestetik, jurisprudentzia, zeinak ezartzen baitu administrazio-tolerantzia hutsak, tasak ordaintzeak edo obra txikiak egiteak ez dutela ordeztzen beharrezkoa den lizentzia. Halaber, baztertu egin da konfiantza legitimoaren printzipioa aplikatzea,

jarduera legeztatzea ezinezkoa delako eta Administrazioak ezin zuelako indarreko hirigintza-araudiaren aurka jokatu. Hala bada, berretsi egiten da elkartearen funtzionamenduaren debekua, eta kostuak ezarri zaizkio apelatzaileari.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1061bd3502cd1569a0a8778d75e36f0d/20260127>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 136/2026 Epaia) EAEko JANen 3/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 13koa. Auzietako Sala.

Epaia argitzen du zer kasutan den aplikagarria bitarteko funtzionarioak kentzeagatik 20/2021 Legean aurreikusitako konpentsazio ekonomikoa: lege horrek arautzen duen hirugarren egonkortze-prozesurako bakarrik da; aurreko prozesuetatik bereizten da, eta, horrela, kalte-ordain horren aplikazio-eremua mugatzen da, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murriztearen testuinguruan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3de3817fc95a6ce7a0a8778d75e36f0d/20260128>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 105/2026 Epaia) EAEko JANen 9/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Hauek ditu oinarri: udal-txosten teknikoen egiazkotasunaren “iuris tantum” presuntzioari buruzko jurisprudentzia-doktrina, probaren balorazio arrazional eta logikoaren printzipioa, kritika zintzoaren arauen arabera, eta kutsadura akustikoen arloan aplikatu beharreko araudia, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko 213/2012 Dekretua eta Ugaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak.

Epaia nabarmentzen du garrantzitsua dela neurketa akustikoei lotutako ziurgabetasuna kontuan hartzea soinu-mugak gainditzen diren zehazteko probaren balorazioan, eta berresten du udal-txosten teknikoen egiazkotasun-presuntzioa indargabetu egin daitekeela aurkeztutako frogak erakusten badu txosten horietan informazio falta edo akatsa dagoela, eta horrek zuzenean eragiten diola haietan oinarritutako administrazio-egintzen baliozkotasunari.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/42bfacc4d7eaeaaaa0a8778d75e36f0d/20260127>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 107/2026 Epaia) EAEko JANen 7/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Salak ezetsi egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak jarritako apelazio-errekurtsoa, eta berretsi egiten du eskatutako kontzilio-neurrirako funtzionarioaren eskubi-dea aitortu zuen auzialdiko epaia. Izan ere, Administrazioak ez du behar bezala justifikatu uka-

pena, argudio generikoetara mugatzen baita, zerbitzurako kalte zehatzik espezifikatu gabe. Gainera, funtzionarioak neurria intzidentziarik gabe baliatu izanak eta unitateko buruzagitza ados egoteak erakusten dute neurria bideragarria dela, zerbitzuaren antolaketari eragin gabe. Salak berretsi egiten du kontziliazio-neurriak eman egin behar direla, baldin eta posible badira eta justifikatutako kalterik ez badakarte, araudian aurreikusitakoetara hertsiki mugatu gabe, eta kontziliaziorako eskubidea haztatu behar dela, Administrazioaren autoantolaketarako ahalaren aurrean. Epaitza: apelazio-errekurtsoa ezestea eta auzialdiko epaia berrestea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3e363d6e7429637ca0a8778d75e36f0d/20260127>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 133/2026 Epaia) EAEko JANen 13/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 14koa. Auzietako Sala.

Epaia argitzen du, lizentziengatik edo baimenengatik luza daitezkeen praktikaldiak dituzten hautaketa-prozesuetan, izendapena data desberdinetan egin daitekeela hautagai bakoitzarentzat, baldin eta legezko gehieneko epea errespetatzen bada, eta, horrela, baimenak legitimoki baliatzeagatik zigorra saihestu eta berdintasun-printzipioa behar bezala aplikatzen dela bermatuko dela, hautagai bakoitzaren egoera indibidualaren arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f0c802413a71edc1a0a8778d75e36f0d/20260128>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 246/2026 Epaia) EAEko JANen 31/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 20koa. Auzietako Sala.

Epaia nabarmentzen du garrantzitsua dela zorbide publikoa bere hedadura funtzionalean kontuan hartzea, eremu osagarriak barne, hala nola maniobretarako eta aparkaleku publikorako erabiltzen diren zabalguak, nahiz eta jatorrizko proiektuan edo hitzarmenean berariaz zehaztuta ez egon, eta muga argiak ezartzen dizkio lursaila ixteko eskubideari, toki-administrazioarekiko hitzarmen bidez eraturako zortasun publikoei eragiten badie.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dcf00850ab3aaf50a0a8778d75e36f0d/20260202>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 264/2026 Epaia) EAEko JANen 32/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 20koa. Auzietako Sala.

Auzitegiak onartzen du emakida-kontratua dagoela, baita isilbidezko luzapen bat ere indarrean, berrorka ekonomikoaren baldintzapean. Ondorioztatzen da ezinbesteko kanpoko kausa bat (haize-boladak) eta jatorrizko eraikuntza-akatsak izan zirela estalkia askatzearen arrazoi nagusia, eta inguruabar horiek emakidadunaren arrisku- eta mentura-printzipioa gainditzen dutela. Baztertu egin da enpresari egotz dakiokeen mantentze prebentiboaren falta izatea kaltearen arrazoi

bakarra. Ondorioz, berronka ekonomikoagatik kalte-ordaina jasotzeko emakidadunak duen eskubidea aitortzen da, eragindako aldi osoa barne hartzen duena, estalkia askatu eta igerilekua itxi zenetik berriro ireki arte, baita COVID-19agatik gimnasio- eta taberna-zerbitzuak itxi eta murriztearen ondorioz izandako galerak ere. Hala ere, estalkia askatzearen ondorengo aldiatarako kalte-ordainaren kuantifikazio zehatza atzeratu egingo da, epaia betearazteko unera, aditu-frogan ez dagoelako xehatutako banakapenik. Ezetsi egiten dira prozesu-desbideratzeari buruzko alegazioak, eta berretsi egiten da udalak aurkeztutako onartezintasun-arrazoiak onartezinak direla. Epaia partzialki baiesten ditu bi aldeek apelazio-errekurtsoak, baliogabetu egiten du auzialdiko epaia, eta udala kondenatzen du ezarritako oinarrien arabera epaia betearaztean finkatuko den kalte-ordaina ordaintzera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d8417c74d613496da0a8778d75e36f0d/20260210>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 289/2026 Epaia) EAEko JANen 28/2026 Epaia, 2026ko urtarrilaren 21ekoa. Auzietako Sala.

Auzitegiak arrazoiak ematen dio Administrazioari, eta berretsi egiten du lizentziarik gabeko lurzoru urbanizaezinean sasoikako langileei ostatu emateko modulu aurrefabrikatuak eraikitzea jarduera klandestino dela, eta ezin dela legezkatu aplikatu beharreko hirigintza-araudiaren arabera. Baztertu egin dira merkataritza-sozietateak legezkatzeari eta oinarriko eskubideen usteko urraketari buruz egindako alegazioak, irizita zuzenbidearen arabera lortu zela frogatzea, eta moduluen erabilera ez dituela betetzen horiek baimentzeko legezko baldintzak. Epaia berretsi egiten du hirigintza-legezkatutasuna berrezartzeko hartutako kautelazko neurrien legezkatutasuna.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c5b54d538e6c78a5a0a8778d75e36f0d/20260210>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 401/2026 Epaia) EAEko JANen 50/2026 Epaia, 2026ko otsailaren 3koa. Auzietako Sala.

Lurzoru urbanizaezineko lursail baten titularrak betelanak eta nibelazioak egin zituen, lehendik zeuden etxolak gaindituta, eta, obra horietarako, 2001ean emandako mantentze-lizentzia bat baino ez zeukan. Obra horiek ez zeukaten ondorengo administrazio-baimenik edo lizentziarik, eta tamaina handiko ibilgailuak biltegitratzeko erabili ziren, baina erabilera hori ez da onartzen aplikatu beharreko hirigintza-araudian. Udalak obrak eraisteko eta lursaila jatorrizko egoerara itzultzeko agindu zuen, eta isun hertsatzaileak jarri zituen lanak ez egiteagatik.

Auzitegiak arrazoiak ematen dio udalari, eta berretsi egiten du lursailaren titularraren errekurtsoa ezetsi zuen auzialdiko epaia. Argudiatzen da obrek argi eta garbi gainditzen dituztela 2001ean emandako mantentze-baimenak, lizentziarik gabeko jarduera klandestinoak direla eta ez datozela bat lurzoru urbanizaezinean baimendutako erabilerekin. Egokia da auzialdiko organoak

egindako probaren balorazioa, eta ez dauka berrikuspena justifikatzen duen akats nabarmenik. Beraz, egokia da obrak eraistea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 221.6 artikuluari jarraituz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/23c4c060cd708144a0a8778d75e36f0d/20260213>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 459/2026 Epaia) EAEko JANen 41/2026 Epaia, 2026ko otsailaren 5koa. Auzietako Sala.

Getxoko Udalak ezetsi egin zuen erakunde batek aurkeztutako 29.574,71 euroko ondare-erreklamazio bat. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen, baina errekurtsorik ez zen onartu preskripzioagatik, iritzita urtebeteko epetik kanpo gauzatu zela egintza, ezbeharrak 2019ko abenduaren 20an gertatu baitzen. Hasierako administrazio-erreklamazioa 2020ko abuztuaren 27an aurkeztu zen, baina artxibatu egin zen, akats formal batengatik. Erakundeak apelazio-errekurtsoa jarri zuen ez onartzearen aurka, argudiatuz administrazio-erreklamazioak preskripzioa eten zuela eta ez onartzea okerra izan zela.

Auzitegiak ondorioztatzen du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa preskripzioagatik ez onartzea okerra izan zela, preskripzioa ezesteko arrazoia delako, baina ez, ordea, ez onartzeko arrazoia. Hala eta guztiz ere, errekurtsorearen zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa ez denez, apelazioa onartezina da aplikatu beharreko araudiaren arabera. Horrenbestez, ezetsi egiten da apelazio-errekurtsoa, ez baita onargarria, eta ez da gaiaren funtsari buruzko epairik eman.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ed8562e93080bb0ba0a8778d75e36f0d/20260216>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 597/2026 Epaia) EAEko JANen 66/2026 Epaia, 2026ko otsailaren 17koa. Auzietako Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako errekurtsorik, eta berretsi egiten du deialdiko lanpostu guztietarako euskararen 2. hizkuntza-profila eskatzea neurritz kanpoko dela eta enplegu publikora berdintasun-baldintzetan iristeko oinarritzko eskubidea urratzen duela; izan ere, administrazio apelatzaileak ez du justifikatu deialdiaren xede diren lanpostu guztietan euskara erabiltzeko eskakizuna ezinbesteko baldintza denik herritarrek beraiek aukeratutako hizkuntzan Administrazioarekin harremanak izateko duten eskubidea bermatzeko. Ezin da ahaztu eskubide horrek bat etorri behar duela enplegu publikora berdintasun-baldintzetan iristeko oinarritzko eskubidearekin, eta Foru Aldundiaren jarduteko moduak eskubide hori kentzen die probintzia horretako biztanleen erdiei baino gehiagori.

<https://www.poderjudicial.es/search/indexAN.jsp>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 703/2026 Epaia) EAEko JANen 81/2026 Epaia,



2026ko otsailaren 27koa. Auzietako Sala.

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa; izan ere, etxebizitza erosteko, erosleak altzarien salerosketa-kontratu bat sinatu eta finkatutako zenbatekoa ordaindu behar zuen, eta horrek, zalantzarik gabe, gainprezioa dakar, altzariak erostera behartzearekin estaltzen dena. Horrela, ez da betetzen arau bidez aurreikusitako debekua, eskualdaketan prezioarekin lotuta, debekatu egiten baititu gainprezioa eta prima, baita aplikatzekoak diren arauen arabera prezioa, errenta edo kanona aldatzen duen kopuru oro jasotzea ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7b700998f254b585a0a8778d75e36f0d/20260309>

TOKIKO MUNDUA EUROPAN

- Eskualdeak, Europako defentsa-industriaren eragile

Europako Eskualdeetako Batzordearen Defentsari buruzko Lantaldeak hirugarren bilera egin zuen 2026ko martxoaren 23an, NATOko, Europako Parlamentuko, Europako Batzordeko eta defentsa-industriako ordezkariekin. Bileran, Batasunaren segurtasuna eta erresilientzia indartzera bideratutako EBren azken ekimenak izan ziren ardatz. Bertan, parte-hartzaileek berretsi egin zuten tokiko eta eskualdeko erakundeek funtsezko zeregina dutela defentsa-politika komunitario bat eratzen, koherentea izango dena eta etorkizun-sena izango duena.

<https://www.cor.europa.eu/es/noticias/las-regiones-motor-de-la-industria-europea-de-defensa>

- Istanbulgo alkate espetxeratua, Ekrem İmamoğlu, Paweł Adamowicz Sariaren irabazle, tokiko demokratiaren alde egiteagatik

Istanbulgo alkate Ekrem İmamoğluc saria jaso du Paweł Adamowicz Alkate Sariaren bosgarren edizioan, demokratiaren, elkartasunaren eta tokiko gobernuaren independentziaren alde egiteagatik, presio politiko iraunkorraren, gorroto-kanpainen eta deskalifikazio politikoko saiakeren testuinguruan.

<https://www.cor.europa.eu/es/noticias/el-alcaldede-encarcelado-de-estambul-ekrem-imamoglu-gana-el-premio-pawel-adamowicz-por-la-defensa-de>

- Zabalkuntzak Europaren segurtasuna indartu eta tokiko demokrazia defendatu behar du, EBko eskualdeen arabera.

<https://www.cor.europa.eu/es/noticias/la-ampliacion-debe-reforzar-la-seguridad-de-europa-y-defender-la-democracia-local-dicen-las-regiones>

ARGITALPENAK

- Aldizkaria: Administrazioa Euskaraz. IVAP. 2026ko urtarrila.



<https://www.ivap.euskadi.eus/webivap00-a5app2/es/t59auUdaWar/R1/sumario/131>

- Pertsonak eta Antolakunde Publikoak kudeatzeko Euskal Aldizkaria. 2025eko abendua. 29.



zk. <https://doi.org/10.47623/ivap-rvgrp.29.2025>

- Documentación Administrativa. Nueva época. 15. zenbakia. 2025eko abendua.



da Número 15
Nueva época
Diciembre, 2025
Documentación Administrativa

Artículos / Artículos

El factor público, nuevo espacio público, espacio... 84

Profesionalización de la gestión pública en España desde una perspectiva generacional
Professionalization of Public Management Functions in Spain from an intergenerational perspective
Blanca González, Oscar Urteaga-Cordero, María Teresa Álvarez, Susana Ariz 93

Las políticas de un procedimiento de la función pública en España
Legal and political aspects of the public sector professionalization in Spain
María José, María 201

La formación profesional de la gestión pública: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
Professional training in public administration: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
Luzmila García, María Teresa, María José 421

La función pública profesional en España: un procedimiento profesional desde la perspectiva generacional
Professional public management in Spain: An intergenerational professionalization from the result of a year
María José, María 517

La gestión de un procedimiento de la gestión pública: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The process of public sector professionalization: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 711

Experiencias y casos / Experiences and cases

Experiencia de la gestión de un espacio público en España
Experience for the urban public space in Spain
María José, María Teresa, María José 81

Una experiencia de gestión de un espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
A case study of the management of a public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 101

DOI: <https://doi.org/10.24965/da.15.2025>

- Gestión y Análisis de Políticas Públicas. Nueva época. 39. zenbakia. 2025eko azaroa.



GAPP Número 39
Nueva época
Noviembre, 2025
Gestión y Análisis de Políticas Públicas

Artículos / Artículos

La función pública en España: implementación y desafíos del futuro próximo
The public sector in Spain: Implementation and challenges of the future
María José, María Teresa, María José 71

El espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 211

El espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 411

El espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 611

El espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 811

Entrevistas / Interviews

El espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 911

El espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 1011

El espacio público en España: un espacio de mejora del estado de bienestar en el futuro
The public space in Spain: A framework to improve the WELFARE in the future of the country
María José, María Teresa, María José 1111

DOI: <https://doi.org/10.24965/gapp.39.2025>

DEIALDI INTERESGARRIAK

- Tokiko eguneratze juridikoari buruzko mintegi-zikloa, 2026ko maiatza.



Informazio gehiago:

https://gobiernolocal.org/Actividades/Ciclo_JME/2026/ProgramaJME2026_esp.pdf

- «Administrazio Zuzenbideko Irakasleen XXV. Biltzar Italiar-Espainiarra. 60 urteko elkarrizketa Italiaren eta Espainiaren artean»



Informazio gehiago: <https://gobiernolocal.org/xxv-congreso-italo-espanol-de-profesores-de-derecho-administrativo-60-anos-de-dialogo-entre-italia-y-espanabarcelona-del-4-al-6-de-junio-de-2026/>